

MENDEJA

UGUSTIN ZUBIKARAI

JUAN F. EGIGÜREN

Augustin Zubikarai — Juan Fernandez
Legerako gordetza BI - 1534 - 88
Irarkola Flash Composition S.A.
Azala: Paulin Zubikarai
Argazki: Juan Fernandez Egiguren

MENDEJA

AUGUSTIN ZUBIKARAI
Juan Fernandez Egiguren
1988


Eskintza

Euskaldun izatea galdu barik, baso eta itxasoetan, bizi guztian, bake miñez lanean ezagutu dan Mendeja'ri, biotzez eskintzen dautsagu gure lantxo au.

Geroak esan dagiala gaurko mendexarrak euren asabei zintzo jarraitzen jakin dabela.

Egilleak





Amoroto 1.3 Km. Marquina 12 Km.

543

547

2° 30'

2° 29'

2° 28'

LEKUTZEA

Ondarroa'tik Lekeitio'ra zabaletik goazalaBaurdo'tik zear, piñu eta eukaliptus saillen artean Mendeja'n sartzeko, Portu-Erreka izango da Berriatua eta Mendeja'ko lurren arteko muga eta guri Mendeja'rako sarrera emongo dauskuna.

Berea da itxasertza, Gurbiztapiatik San Nikolas ugarte ertzerañño.

Bereak aitz ondo eta ondartzak eta bitartetako arritzak Lea ibaiaren erdiraiño.

Eta Isuntza'ko arku bakarreko zubiaren erdia igaro bearko da Lekeitio'n oiñak ipinteko.

Beste alde, Lekeitio'tik Amoroto'ko Oleta'ra goazala, Ispaster'ena dan Arropaindik zear joan bearko gara, ia bidea joten Lea ibaia dogula, ibaia eta muga era batean, Oletaraiño, eta an Plazakolarako bidea artuta, Zulueta errekatxoa izango da Amoroto'ko lurretatik zear eroango gaituna, Basondo egalean zubitxoa igaro ta Mendeja'ko lurretan sartu arte Ziñoiz mendi barrenera jarraitzeko Mendeja'ko lepo egiten dan Iturreta auzoan.



Neurriak:

Mendeja, lurrez ez da andi, baiña ba dagoz Bizkaia'n bera baiña ainbat txikiago. Lurrez Lekeitio baiña ia ia lau bidar andiago da. Lekeitio'k 1,77 km lautu daukaz. Mendeja'k 6,89 km. lautu.

Auzoak

Lau auzotan banatzen da:

Elizalde,

Iturreta

Leaegi

Likona.

Mugak

Ipar eta Sorkaldean, Kantauri Itxasoa.

Egoaldean, Amoroto eta Berriatua.

Sarkaldean, Lekeitio, Ispaster eta Amoroto.

Bide-egoera.

Lekeitio'tik Ondarroa'ra duan bide-nausia bere itxas-aldetik igaroten da.

Bilbo'tik 60 kilometrotara.

Gernika'tik 26 kilometrotara.

Erriko erdi ingurura sartzeko, lsuntza zubitik bertaraño daruan bide nausia artu bear da.

Bizilagunak

Azken eun urtean euneko ogei (%20) beratu da bizilagunetan.

Ara urteak eta bizilagunak:

1887 — 423.

1900 — 419.


1920 — 418.

1940 — 460.

1960 — 412.

1978 — 332.

1986 — 342.



ISUNTZA ZUBIA, ERDIA MENDEXA, BESTE ERDIA LEKEITIO

Bizilagunen sailkapena.

1987 urtearen asieran, bertako bizilagunen sailkapena era onetan banatuten zan:

Bizi- lagunak, guztira	342	176 gizonezko 166 emakume.
Adiñ edo urteen araberan:		
60 urtetik gorakoak	108	50 gizon 58 emakume.
18/60 urte birtartekoak	191	104 gizon 87 emakume.
18 urtetik berakoak	43	17 gizon 26 emakume.

Bizitzako egoerari buruzko sailkapena beste au da:
Ezkonduek 140

69 gizon
71 emakume.

Ezkondutakoak 180

101 gizon
79 emakume.

Enparauak 22

6 gizon
16 emakume.

Bizilagunen jatorria.

Mendexa'ko 342 bizilagunak era onetan bereiztuten dira euren sortzeko toki edo jatorriari buruz:

316 Bizkaia'n jaiok.

12 Gipuzkoarrak.

Arabarrak ez dago.

9 Beste probintzietan.

5 atzerritarrak.



MENDEJA'KO UDALETXEA

UDAL ERAKUNDEA

Eleiz-ateko ordezkariak

Gaur eleiz-ate onetako ordezkariak zazpi izaten dira, eta 1987'ko auteskundeen ondoren, Udal batzarra era onetan osotzen da:

Alkatea: Martin Aranzamendi Gabiola.

Ziñegotziak (kontzejalak):

Pedro Mari Arrillaga Kalzakorta.

Karmelo Goikoetxea Arrillaga.

Franzisko Jabier Guenaga Iturraspe.

Jose Luis Guenaga Laka.

Jose Martin Iturraspe Okamika.

Agurtzane Laka Koskorrotza.

Bizi-lagunen adiña

1986'en egin zan bizilagunen zerrendatik (zentzutik) ikusten da, mendexarren adiña gizaldiagaz batera dabillana dala. Bakar bat agertzen zan 1.898 urtean jaioa. Emakumea. Beste guztiak 1.900 urte ezkerozkoak.

Izkuntza (Berbeta)

Mendexarren euskera, bizkaiera da, eta Bizkai-izkeldien (dialektoen) barruan, Sorkaldekoa deitzen dana, Markiña aldeko bereizkuntzaduna.

1980 urtean egindako inkesketan bertako bizilagun guztiak euskeldun lez agertzen ziran. Urte aretan 358 bizilagun zenbatuten ziran bertan eta danak euskaldunak.

Udaleko aurrekontuak (presupuestoak)

Mendeja'k bizitasun andia artu dau azken sei urtetan Udaleko aurrekontu eta ondasunetan.

Gogoratu bearreko da gure gizaldiaren asieran 2.700 peseta zala bere urteko aurrekontua eta orrelaxe, alderantzi gitxigaz urte luzeak igaro.

Azken sei urtetan, dirutza oneik erabili dira:

1982.— 4.100.000 (Lau milloek ta eun milla)

1983.— 5.400.000 (Bost milloek ta laureun milla)

1984.— 6.150.500 (Sei milloek, eun eta berrogei ta amar milla ta bosteun)..

1985.— 9.304.000 (Bederatzi milloek ta irureun eta lau milla).

1986.— 55.500.000 (Berrogei ta amabost milloek ta bosteun milla).

1.987.— 24.000.000 (Ogetalau milloek).

1.986 urteko gorakadea zeaztuteko esan bearreko da, urte orretan gastatu zirala Bizkaiko Aldundiak, Foru Plangintzak deiturako laguntasunen saillak emonda eukazan aurre-urtetako diruak be. Origaitik bat bateko igoera.

Erri egoera ekonomi aldetik.

1986 urtean Bizkai'ko Aldundiko Ogasun eta Finantzen saillak argitaratutako Udalez Udaleko Ekoizpena eta Sarrera deiturako liburuan, Mendeja'ri buruz irakurten da:

Mendeja, nekazaritza ingurumariko egitu raren ezaugarrietako bat dala, familiko lankidetza daukan etorkizun gitxiko lenen sektorea nagusi dauala. Bigarren eta irugarren sektorerako, 300 bizilagun daukazan erri baten ezin besteko betebearrei dagokiezenak dirala. Lan bide tasa ugaria izanarren, bertako per-capita sarrerako Bizkai'ko batez bestekoa baiño %33 (euneko ogetamairu) urriagoak dirala.

Bertan esaten da, baita be, lenen sektorea nagusi dan beste errietan antzera, serbitsuen ornidura oso egoera eskasean dagoala, serbitsu sektoreko enplegu bakoitzak 39 bizilagun daukazala.

Eta orretan Bizkaia'n batez- bestekoa zazpi laguneko bat da.

Lau erri izentatzen dira Bizkaia'n ekoizkortasun (produktibitate) txikien daukenen artean: Mendeja, Ubidea, Meñaka eta Errigoiti.

Errentagarritasun txikiena daukenen artean, beste oneik: Meñaka, Ereño, Gamiz-Fika eta Mendeja.

Udal ekoizkortasunean Mendeja'k 646.910 pesetako sarrera emoten dau gordiñean eta 606.141 pesetako garbian (netoan).

Gustira, balio geitu edo erantsiaren gordiña (erderaz valor añadido bruto) Bizkai'ko errien arteko 0,02 da.

Erri erakundea istorian zear.

Bizkaia. oñaztar eta ganboatarren menpekoetan banatuten zanean, Mendeja oñaztarren aldetik ibilten zan.

Gernika'ko Batzar Nagusietan, eleiz-ateen artean, 23 garren emoten eban bere autarkia (botoa).

Merindade lez Busturikoan sartzen da.

Baiña ez beti.

1.872 urtean, esate baterako, zazpi merindade egozan Bizkaian eta banaketa nastetsua inguruei buruz.

Inguru onetan, esateko, Gizaburuaga eta Lekeitio Busturikoan sartzen ziran.

Amoroto eta Mendeja, Zornotzakooan.

Berriatua, Markina eta Ondarroa Durangokoan.

Kontu zarrak. Udaleko aurre kontu bagako ondorenak.

1.810 urtea. Mendeja'ko ondasunak eta ordain-bearrak.

Sarrerak:	Errialetan
Udaletxeko gela bat urtean alokatzea	30
Errentan emona dagon erriko solo bat	66
Santa Luz ia ermita joten dagon etxetxua, bertako ira-batze eta Kurtziagako erreka inguruan dagon ariztiko orriak	99
Azken urteetan erriko gaztañadiak batez beste urteko	44
Basoetako ota eta mendietako basaberak, batez beste urteko	170
Tabernak urtean batez beste emoten dauana	550
Azken urteetako zorrak ordaintzeko egin diran mendi ebagiketak	432

Guztira, sarrerak ... 1.391 errial

Urteerak:

Kontribuziñoei aurre egiteko lortu diran aurreratzeak	486
Frantzetar gudarien gastuetarako udal oneri ezarria	1.456
Udaletxekoen alojera	70
Mendi zaiñaren alojera	24
Aldundiak ipinitako zerga	171
Alkateak Bula zabaltzeagatik eta dirua batzeagaitik	22
Errialde onek Teniente Generalari emotekoa	46
Lapurrak zigortzeko etxe bakoitzak emon bear dauana	91
Erri-lan, basoetako lan eta beste goraberakaitik, urtean, nai ta geiago kostatu, batez beste	600

Guztira, urteerak 2.966 errial

Laburpena: Sarrerak	1.391 errial
Ordain bearrak	2.966 "
Guztira, zorretan	1.575 "



1.866 urteko legea eta Mendeja

1.866 urtean, Lege-aurreko bat burutu eben Madriden errien erakunderako. Bear aiña bizilagunik ez euken erriak alkartu bearreko atala agertzen zan bertan.

Atal orrek, lege aretako 71 garrenak, mailla batera elduten ez ziran erriak auzokoekaz konpondu ta bateratu bear zirala agintzen eban.

Orrela Amoroto'k 108 famili-buru eta arduradun eukazala esaten zan. Bizilagunak, guztira, 540 ziran.

Mendeja'k 65 famili-buru eta arduradun eukazan, auzokide lez ezagutzen ziranak. Bizilagunetan 336.

Legea aurrera eroatea izan ba litz, Mendeja'k bere nortasun guztia galduko eban.

Mendeja'tik Amoroto'ra, orduan neurtzen zan lez leguatan konatatuta, legua laurden egozan, jakiña danez, legua bakoitzak bost kilometro eukiten zitulako.



OIÑETXEAK

Zenbat oiñetxe edo jatorrizko etxe dagoz Mendeja'n?

Estanislao Labayru istori idazleak, Bizkai'ko antxiñako oiñetxe jatorrak izentatzean, lau agertzen dauz, armarri ta guztikoak eta eurekaitik au esan:

LEONIKIZ, Mendeja'n. Armarria: Urdiñean eta bertan urrezko gurutze uts bat zortzi aspaduna.

LIKONA, Mendeja'n. Oiñetxe eta armarriduna (eskudoduna). Ez dau esaten Mendeja'ko Likona'ren armarria zein dan. Bai, ordez, Lekeitio'kua.


Onela: Armarri laurdendua. Lenengo eta laugarren zatiak, zidarrean, urrezko aingura geigarriekaz eta argi-zuri unekin, goi eta beko zabalunetan biurtuta: aingureagaz aspak osotzen dituela, bigarren eta irugarren zatietan, gorrian, Calatrava'ko urrezko gurutza.

Etxe onetatik datozen beste Likona batzuk, ainguren baltz eta gorri zelai baten agertzen dabe, eta Calatrava'ko gurutza baten ordez bost erabili zelai urdiñean.

MENDEJA.— Orlegian (berdean). Egazti bat, baltza, bere pikuan zuzi bat daroala sutan, perra baten itxuran. Armarri azpian, ur-olatuak, urdin eta zidar kolorez.

OLEA.— Ondo urdin baten esku bat, erdian zidarrezko gurutadun ikurrin bateri eusten. Etxe onetakoa dirudi, zala, Olea alferez ospatsua.

Ezin ukatu geiago be ba dagozanik.



ALGORTA

Au billatzean ALCORTA (ALKORTA) gaz topo egiten dogu eta atal onetan Jaime Kerexeta-ren "Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco"n au esaten da:

ALCORTA (ALKORTA) Mendexa'n (Bizkaia'n) eta emendik Albistur, Zestona eta Gipuzkoa'ko beste lurraldetan.

Esan naiak: Arri-korta. Edo ta baita **AI** = pentsu, janari, **korta**.

Edo ta baita alkor = bazka, janari eta toki izena iragarten dauan **ta** atzizkia.

Abizen oneri dagokiozan iru armarrietatik bat be ez dator Mendaxa'ko etxe onetan ikusten danagaz.

Kerexeta'k agertzen dauan armarri bat au da: Aitz bat, itxas erdianr Gorago giltz bi, urdiñean, eta gorago kurutza bat.

Beste armarri bat: Berdean, urrezko zubi bat, olatu zidartsu eta urdiñen artean.

Irugarren armarri bat: Gorrian, lau ezkur urrezko marrazki antzena ipinita.

Ordez, Mendeja'ko armarri zuzena, ALGORTA atalean ipinten dau. ALGORTA, Argota'ren erabide bat dala diño.

Eta armarria: Urretan, zuaitz berdea, zuaitz oiñean otso bat ikusten dala baltzean.

Au bai, auxe da ALGORTA Mendexa'ko etxean agertzen dana, ondorengo argazkian ikusten danez.



LEAEGI (edo LIEGI)

Armarriei buruz idatzitako liburuetan esaten da, XVI garren gizaldian Bustiria'n agertzen dala abizen au eta Mendexa'n.

Esan gurea: **Lear** erderazko grava eta **egi** = tokia.

Isaak Lopez Mendizabal'ek, bere Abizen edo apelliduen Bildumako liburuan beste esan gura au egokiago billatzen dautsa: la-egi, au da, iak dagozan tokia.

Armarria.

Abizen eta etxe onek armarri bat baiño geiago daukaz.

Bat: Bitan zatitua: zati baten, urretan, basurde ibiltari baltz bat; beste zatian, urdiñean, urrezko izar bat.

Beste armarri bat: Bardintsu erabilia da, baiña zati bitan ordeztu, lau zatitan banatuta. Lenengo eta laugarren zatietan, bakoitzean basurde bat, eta bigarren eta irugarren zatietan, bakoitzean izar bat.

Esan bearreko da azken au, au da, lau zatitan banatutakoa dala Mendexa'ko etxeari dagokiona, beragoko argazkian agertzen dan lez.

Armarriak billatzean, gogoratu bearreko da bearrezko dala norbere etxea nundik datorren, nungoa dan jakitea, zeaztasunez jokatu al izateko.

Abizen edo deitura askok armarri bat baiño geiago dauke, eta zintzo eta jator norberari dagokiona jakiteko, aurrez norbere jatorria ezagutu bear da, eta jatorri orretan agertzen dana erabili, ez dotoretasun edo edertasunak atsegiñez ikusi eragiten dauana.



Mendeja'ko oiñetxe jatorrak

Armarria (eskudoa) euki edo ez dauka ze ikusirik oiñetxe bat, baserri bat, jatorra izateko.

Jaime Kerexeta'k, bere "Casas Solariegas de Bizkaia" liburuan, etxe oneik sartzen dauz Mendeja'ko oiñetxe edo jatorri-etxe lez:

Agirre	Ikuza
Agerregi (Akarregi)	Lea Basterretxea
Aldekoa	Lea bekua
Algorta	Lea etxetxua
Allona	Lea goikua
Arrasate erdikoa	Leaegi aurrekua
Arrasate goikoa	Leaegi torre
Arrasate nagusia	Likona
Beazkoa	Likona erdikua
Endaidi	Likona zabala
Etxebarri	Lonikiz torrea
Errementarikua	Lonikiz
Eskaiturrieta	Loibe beko
Goxeaskoa	Loibe goiko
Ikoaga goikua	Markue
Ikoaga bekua	Mendibe
Ipidegi	Torre zelaia
Iturraspe	Torretxu
Iturrate erdikua	Santiagonea
Iturrate goikua	Uskola bekoa
	Uskola goikoa

Armarri zaletasuna lez sartuta dago gaur euskeldunen artean, bakoitzaren abizenak, apelliduak, ze esan nai ete daukan. Au da, bere lekukotasun, inguru, edo izenetan oiñarritu diran gure apelliduak, zelako osapidea dauken berba bat, bi edo iru alkartuta, eta errezagot, au da, banaketa egiñaz, zer dan gure deituraren esan nai edo adierazmena.

Onetan, etimologi arazo onetan ibili diranak, ez datoz danak bat. Bakoitzak zelako pentsabidea, alako ingurua billatzen dautse. Alaz eta, besteen irizpidea jasoaz, Mendeja'ko abizenei argibideren bat emon giñei.

Etxe-deituren esan-nai ta agerpidea

Agirre.— Euskalerrian asko dagon abizena. Bear ba da ugariena.

Esan-naia: Toki argi, zabala.

AKARREGI.— Ageratoen lurra, tokia

ALDEKOA.— Alboko tokia.

ALGORTA.— Lerrea, soroa,abel-bazkatokia.

ALLONA.— Elardia, txillardia.

ARRASATE.— Arrats-ate. Larreko sarrera, isats lekua.

BEASKOA.— Larratzeta azpiko etxea. Edo etheen izenekin lotuta danean, bekoa.

ENDAIDI.— Andura, iraurri tokia. **Enda** =yezgo eta **di**, toki.

ETXEBARRI.— Deitura garbi eta erreza da.

ERREMENTARIKUA.— Deitura garbi eta argi adiezoen dauana da.

ESKAITURRIETA.— Batzuk Askaiturrieta esaten dabe. Mendeja'ko XVI garren gizaldiko liburuetan Escaiturrieta argi irakurten da. Eskar, erderazko arce eta iturrieta, au da, iturri-tokia alkartu bearko litza-kez bere esan nai osoa adierazteko.

GOJEASKOA.— Goi aldeko etxea.

IKOAGA.— Erderazko retamal.

IPIDEGI.— Erderazko lugar de tejos.

ITURRASPE.— Iturri-azpitik, edo aitzpeko iturritik atara bear.

LEA.— Erderazko juncal.

LEAEGI, LIEGI.— Erderazko juncal.

LIKONA.— Larreta, sasitza. Erderazko zarzal'tzat agertzen dabe.

LEONIKIZ.— Mendeja'n agertzen dan abizentzat irakurten da libu-ruetan.

Larra-belar toki, bazka.

LOIBE.— Larra-belar azpi, beko alde.

MARKUE.— Ba dira Marcos izenetik eratua dala esaten dabenak.

MENDIBE.—Argi dago bere esan naia.

SANTIAGONEA.— Argi dago bere esan naia.

TORRE-ZELAIA.— Argi dago bere esan naia.

USKOLA.— Batzun ustez Urkola da, au da urki-toki.

Barrero diñogu onelako gaietan ez datozala danak batera eta agerpenik zabalenak agertu doguz zerrenda onetan.

MENDEXARREN ELEIZ EGITURA

Gaitz da, banakaren baten ezik, euskal ermiten denporetan lekutzea.

Lengo ermita batzuk, parroki biurtu ziran, askotan eleiz agíntari berberen gogoaren aurka.

Ala Uskola'ko Pedro donearen ermita zarra, Mendaja'ko parroki biurtu zan. Baiña ermita parroki biurtu artean, garraztasun bitartea, erri asarrea, kontzientzietako kezka eta ase eziñiko gogo gori gori igarten ziran.

Ermita batzuk baseliza baiño geitxuago ziran. Eleiz-ate bateko eleiza nagusi, auzo bateko kristiñauen batzartoki, nai eta inguruko errietako beste parroki batek bere kerizpean euki.

Orixe gertaten zan Uskola'ko Pedro deunaren ermitegaz. Uskola batzuntzat, Urkola besteentzat.

Orain parrokiari begira gagoz, ez izenari.

ASABAKANDIKO KEZKA.

1410 urtean azterketa bat egin zan jakiteko zeintzuk ziran Bizkaia'n bertako jaunei errentak ordaintzen eutsezanak eta nortzuk ziran arein izenean errenta orreik artzen zituenak, edo obeto esanda, nortzuk ziran eleizarentzako amarrenak kobratzen zituenak, gero areik eleizagazko betebearrak beste era baten ordaintzeko.

Eta erantzunen artean artutako baten Mendexa'ko san Pedro agertzen zan orrelakoen artean. Lekeitio'ko parrokiaren menpeko eta lau milla ta bosteun marau (maravedi) ordaintzen zitula eta Adan de Yarza jaunak jasoten zituala.

Baiña gauzak orretan geratu ziran.

GOTZAIN KEZKATI BAT.

1545 urtean Juan Bernal de Luco gotziña ibili zan inguru oneitan bere gotzain ikustaldia egiten. Gotzain barri eta oraintsu izentatua zan.

Gizon argi eta zuzen zalea.

Ba ekian Bizkai'ko uriak oraindik gotzaiñen aurka, obispoen ikusi-eziñaz ebiltzala. Adiskidetu nai eben, baiña eurena lortuta gero, edo antzerako jokabidea erabiliaz.

Bera, gotzaiña, espiritu oneko gizona zan eta ausartu zan Bizkai aldera etortera.

Konpondu bearra egoan tokian ez eukan lotsarik ez bildurrik zeñeri ikutu edo ta zeñeri arpegi emon. Egin bear zana egin. Urteetan zear, Euskalerrian, eta geien be Bizkaia'n errialde askok gotzaiñak agertzea nai eben, nai eta uririk geienak orren aurka egon.

Auzi ugari egoan txikien artean. Konpontzerik lortzen ez ebe-nak, eta askotan amarrenak edo ondasunak bitarteko zirala, beste barik. Eta Bernal orrek, auziak luzatu barik, erabagita lagatea nai izaten eban.

Orrelako bat Mendexa'ko eskabidea zan, lekeitiarrak edo bertako abadeak ermita edo baselizatzat euken Pedro deunaren ermita, parroki biurtzea.

Gaiñera or egoan beste ezaupide bat. Mendexa'ren antzera Lekeitio'ko parrokiko menpean egon ziran Ipazter, Gizaburuaga eta Amoroto'k Bula bat lortu eben 1519 urtean parroki jator eta osoko lez ezagutzen, au da eskubide osoko parroki lez ezagutzen.

Orrek indartu egiten eban mendexarren eskabidea eta ori kon-tuan eukita, gotzain orrek, Lekeitio'ko erri agintari eta eleiz agintari-rien gogoaren aurka, mendexatarren eskabideak eskubide zuzen-tzat artzen ausartu zan.



**GIZALDIEN
GIZALDIETAN
EZAGUTU DAN ATEA**

ASARREAK AZTERTZEN.

Mendeja'ko bizilagunak asarreak agertu zituen bertan bizi zan abaderik ez eukelako eta bertan eguneroko edo bear zan etako serbitsu jatorrik ez eukelako, utsune orrek kristiñauentzat ekartzan kalteakaz, geien be bide zakarrak egozalako gaitz izaten zalako eurentzat urira joatea baten batek sakramentuak artu bear zitunean. Gaiñera eguraldi txarretan, aize eta euri egunetan Lekeitio'gaz bat egi-teko euken zubia, edo itxas mareak gaiñez eginda edo ta urak tata- rrez eroanda egoten zalako. Era orretan ezin izaten eben ez jllik obratzera eroan, ez umerik bataiatzera.

Bernal de Luko gotzaiñak, eleiz arauak agintzen daben lez, aurrez goraberak ziurtatu ondoren, eta Uskola'ko Pedro deunaren ermitan (oraindik liburuetan Mendeja'ko eleiza Uskola'ko Pedro deunaren kolaziñoia deitzen zan) parroki lez ezagutzeko aiña bizila- gun ba egozala konturatuta, Azilla'ren 4'an Lekeitio'ko abade tal- deari agindu eutsan, Mendeja'ko ermita parroki biurtzeko agindua artu eta bederatzi egun igaro ondoren, bertan eleiz serbitsuak bete- teko gai izango zan abade bat izentatuaz, orrela egin ezik benefizia- du bakoitzari amar urrezko dukaten isuna ezarri eta eleiz eskubi- deak kentzea nai ez ba eben, dirutza ori Mendeja'ko eleiza eta ber- tako pobreentzat izanik. Eta denpora ori igarota ez ba eben iñor izentatzen, Mendeja'ko parroko eliztarrei eskubidea emoten eut- sen gotzaiñaren abegi ona eukiko eban eleiz gizon bat aukeratzea, eleiz zerbitzuak eurei eskintzeko eran, amarrenak berari emonaz. Eta agindu eban bateotarako ur bedeinkatu ontzia gertuteko, Sak- ramentu santua ipínteko eta illen aldeko eleizkizunak bertan egiten asteko, beste parroketan oituraz egiten ziran lez.

Lekeitio'ko abade eta erri agintariak mindu ziran eta Aita San- tuaren Ordezkarirengana jo eben, Kalagorri'ko gotzaiñak dekretu onegaz egiten eutsen kalte eta iraiñagaitik, euren ustez Uskola'ko Pedro deunaren ermita eta baselizako eleiztarrak Lekeitio'ko parro- kiaren menpekoak ziralako. Baiña lekeitiarrei ez yaken geratu parroki nausi izatea besterik eta Mendeja'ko eleiz-ateak, aldi oneta- tik aurrera, bere parroki berezia euki eban.

Bernal de Luko gotzaiñak artutako erabagi au aintzat artzeko, 1.510 urtean Kalagorri'n artutako erabagi bat gogoratu zan. Eraba- gi aretan agintzen zan urien inguruan egozan eleiz-ate, auzo eta baserrietan, amar, amabost edo ogei edo geiago bizi-lagun ezkon- du bizi ba ziran, eta eurak emoten edo eskintzen ebezan amarren eta errentak bertan bizi eikean abade batentzako aiña emoten ba eben, euretarako abade ziur bat izentatzeko.

(Labayru, Hist. Gral. de Bizkaia, IV, 240.)



MENDEJAKO SAN PEDRO ZARRA

AGINDU BARRIAK.

Kalagorri'ko gotziaña zan Lepe jauna bigarrenez etorri zan inguru onetara 1690 urtean.

Mendeja'ko parrokira egin eban osteran, barriztu bearreko ziran oitura batzun artean, joko batzuk oartu edo gogoratu zitun, eta agindu eban emen eta Lekeitio inguruko eleiz-aurre eta iltegietan, ez ibilteko jokutzen txiringola, bolo, pelota eta antzerako jokuetan, eta orrelako jokoak egin eta erabilten ziran tokietan, arria ipinteko eurak egiten ziran be ta lurretan.

PARROKIA

Uskola'ko Pedro deunaren ermita zarra noiztik datorren, edo noizkoa dan, ez dakigu.

Ermita ori artu zala gaurko parrokitzat, ezpairik ez dago, pape-retan garbi agertzen dalako.

Irutasun giro edo itxurako parrokia da kanpotik. Ez misterio orren eraspenez jaso dalako, bere aurreko orma eta torrearen egitura orretara itxuratua dagolako baiño.

Parrokiak 85 oin daukaz luze.

48 oin zabal.

48 illobi eukazan.

4 aldare, oraingo aldaketa egin aurretik.

Eleiza, Pedro deunari eskiñia da, baiña ez san Pedro arrantza-leari, inguruetan ezagutzen dan lez, san Pedro Ad Vincula deitura-koari baiño, katedun Pedro deunari.

Dagonillean, Abuztuan ospatzen da bertako jaia. Illaren lenen-go egunean.

Ba dago parrokian beste irudi bakan bat, Gorka deuna, san Jorge, Uribetarren armarria (eskudoa) daukala.

Parroki onetan barriztapen lanak egin ziran 1890 inguruan. Erri guztiak gogoz eta ametsez beterik artu eban bere gain eleiza-ren egokitzea.

Gero, liturgi barriaren ondorenez, barriro Mendeja'ko erria aurreratu zan eleizan lan barri geiago egitera, eta ormetako arri agertze, aldara aldatze eta gaur dagon eran eleiza gertutea 1970 urtean egin zan.

Onetan esan bearra dago mendexar guztiak bat egin eta auzo lanean zintzo iñardu ebela, etxe guztiak alkartasunean ibiliz zeregin orretan. Onetan euskaldunen sinistea beti izan da parrokia bakoi-tzaren bigarren etxea dala eta mendejarrak siniste orreri eutsi eta jarraitu nai izan eutsen.




MENDEXAKO ELEIZA





MENDEXAKO ELEIZA



ERMITAK

Nai eTa eleizaz Lekeitio'ko parrokian sartu, egon zan Mendēja'ko lurretan eraspen andiko ermita bat, san Juan izenekoa. Ospital zarra deitzen zan etxean egon zan.

Gaur orma batzuk baiño ez dira agertzen ospitalarenak, eta egal baten ermita aren goi (bóveda) Izan zanaren zati bat. Baiña jakiña da eta ziurra ermita ori egon zala eta ospitalaren egitura beratzean, bere ormak be galdu zirala.

Mendēja'n entzute eta joera andia euki eban eta daukan ermita Kristobal eta Luzia deunen izenez, Algortatarren etxe inguruan dagona da.

Noizkoa dan?

Labayru'k, bere Historia General de Bizkaia, IV liburuko 425 orrialdean diño:

Emengo Santa Luzia izeneko ermita antxiñakoa da eta aurren amaitzen dogun 1575 urte onetan osotu ziran gero bere zuzenbidean erabiliko diran arauak.

Berak or dago aitopen zabal bat. Orain lauren eta piku urte be antxiñakoa zan.

1602 urteko erri-eskribu baten agertzen da Algortatarren jautetasuneko zala, antxiña jaso izan zan ermita ori.

Begietatik makal dabilzan askok dakie ermita orretara etorten, orretarako eskintza eta promesak be egiñaz.

Jai eguna Gabonilla'ren 13'an ospatzen da, Luzia deunaren egun lez, eta Uztailla'ren 10'ean, Kristobal deunaren egunez.

Ermita txukuna da, ondo eratua. Aldare ederra dauka.

Eleiz jantzien artean, zisterreko fraileak eskiñitako kasulla eder baten jaube zan. Itxuraz Algorta familikoen bat ordena orretan fraile lez bizi zan, eta aregandik artu eben eskintza ori, geien bat Algortarrak fraile arei bialtzen eutsezan laguntzak eskartzeko.

Ermita onetan Sokorri'ko Andra Mariaren irudi bat gurtuten zan.

Aita Jose A. Lizarralde'k, bere Bizkaiko Andra Mari irudieí buruz egindako "Andra Mari" liburuan ("Ensayo Iconográfico Legendario e Histórico ANDRA MARI, reseña histórica del Culto a la Virgen Santísima en la Provincia de Vizcaya, 1934) au diño:

"Sokorriko Ama, Algortatarren Luzia deunaren ermitan. Mendexa. 0,82 metro luze. XVI garren gizaldiko irudia, ondo polikromatua. Edozein ez zan taillagilleren batek egiña. Baiña esku txarraok bere arpegian ikutuak egin dautsez eta irudi zatar lez itxi. Bear ba da Bizkaia'n ezagutzen dan Sokorri'ko Amaren irudietatik lenengotarikoa izango da"

Erdibitzeko dagozan andren mesede egille da. Bere jantzieta-ko zatitxoak emoten jakoez eta orde z eurak ollanda zuri bi eskiñi bear izaten ditue ermitarako, lortu daben grazia autortuz eta eskar-tuaz.


Lekeitio'ko arrantzaleak be, atunetarako urten aurretatik ba dakie ermita onetara etorten, osasunez biurtzeko eskabidez.

Uste da Sokorri'ko Amaren oneraspena XVI garren gizaldian sartu zala Bizkaia'n.

1896 urtean barriztu zan ermita au eta gaur ezagutzen dan eran itxi.

Barriztapen au gogoratzeko marmol-arrian irarrita, Arana Goiritar Sabin'ek egindako oroimen-idazti bat agertzen da, aldare nagusian, ezkerreko orman. Esan nai bardiñagaz, eskumako orman, latinezko beste bat.

Euskerazkoan au irakurri leiteke: (Oarra: Idatzi onen ortografi idazkera zerbait **aldatu** bearrean aurkitu gara, gaurko idaz-tresnak ez dabelako t eta I ta r busti edo ganguardunik erabilten. Baiña argazkian argi ikusten da idazkera ori.)




Jayotekuak dakijentzat.
Zartasunagaitik erotuta ta jausiriko
basatxauno au
ALGORTA'TAR KAULDI
Bizkai'ko Lekeitio-semiak
azpitik berriragí bere alegiñaz eragin dau,
Jaungua'ren Ama Andijaren
eta D-Luke-n eta D-Kisto-por ziñopaen
ixen eta aintzarako
Iruron zaimen indartsupian
bere buru ta sendija imiñirik.
Paben Paskal Gotzone Sope ta Nekane
eragilliaren seme-alabeak
euren aita maite maitiak
4XX'g. Urtian asitako egipen au
zorunez urte bigarreanean
amaitu dabe
A. eta G.'tar S.

Juan Algorta Aranzibia, Algortatarren sendikoari, Santiago'ko zaldun (Caballero de Santiago) jantzi eskubidea emon eutsen 1784 urtean.



STA. LUZIAREN ERLIKIAK (MENDEXA)



SZ: C ZA

ZIBORIU

Mendexa'ko parrokian, Bizkaia'n gitxi dagozan pitxietako bat egon: ziboriva, aldara-zerua, sagrariotzakua, oteundegia.

Bizkaia'n, dakigunez, Begoña eta Berriatua'ko parroketan egon ziran antzerakuak. Begoña'n ba dago. Berriatuan azterrenik ez. Bear ba da bazterren baten galduta edo traste zarren artean eskutauta.

Beste bat Soscaño'n egon zan eta laugarrena Nabarniz'en dago. Emengoak ez dabe nai izan parrokitik aldunderik.

Bostgarrena, Mendexakua zan. Eta da, esan bear, nai ta Soscaño'koa eta emengua Bilboko Arkeologi, Etnografi eta Kondaira Museora eroan eta egon, pitxi erakusgarri lez jendeak ikusi dagian, jaubetasuna Mendexarena izango dalalko beti.

Museo aretan atara doguz emen ikusi (eikezan argazkiak.

Zenbat Mendexarrek dakie euren parrokian orrelako pitxi berezirik eukenik?

Ziborio au ondar arrian egiña da.

2,30 daukaz luze eta 0,65 inguruz, gerriz.

Exagonala da eta bere ertzetan beste iru zutabe biribil daukaz.

Bere egitura osoa, bear ba da, len luzeago izango zan; akan-tozko espan egala dauka eta kapitela itxurako baten amaitzen da.

Arkatxoaren azpia exagonala da eta bera oiñarritzen dan kapitela aretan parekoa. Atea burdiñazkoa da, aingeru irudiak zelatari edo zaindari dirala eta iru saitzez apaindua da.



Mendexako ziborioa
(Mendexa)

Museo etnografico. (Bilbo)



BIDEETAKO KURUTZAK

Bizkai aldea kurutza ederrez inguratua aurkitzen dogu. Batez be auzo, inguru eta lurraldetako gurutzetan.

Ertiz betetako kurutza arrigarriak batzutan, Elorrio, Durango eta abarretan lez. Arrizko kurutze mardulak bestetan, errietako argiñen zintzotasun eta alegiñez arri penduletatik atara eta nekez lortutako lan gordiñak, osta-osta bardindu eta lautuak edo biribilduak bestetan.

Kurutze oneik uri, erri eta eleiz-atetako istori luzea erakusten dabe. Bertako gertaera eta eskutuko bizitza askoren ziñaldari mutu dira.

Gizaldi luzetan aintzat artu eta lotsaz zaindu ziran andabidetakoko geltoki lez izaten ziran, illeta egunean bidean eroien ildakoaren alde laguntzailleak otoi barri bat egiteko. Mendeja'ko zaldunak lez, errenteru txiki eta txiroak; etxeakoandre lerdanak lez, umez betetako emazte mintsuak; agure eta gazteak, bardintasun osoz geratzen zituen, azken baten, kurutze onein erruki eta itzala artzen.





Errogatibak egiteko be, jo-muga izaten ziran askotan.


Iñor ez ei zan igaroten euron aurretik txapelik kendu barik, ez eta Aita gurea otoiztu barik.

Bidietako kurutzak, askotan, lege zapaltzalliei be, kontzientzietan ixilleko deia egiten eutsen; asarrietan bizi ziranei maitasun agindua gogoratu; eta beti be ibiltariei euren bakartadean bide zuzena erakutsi.

Mendeja'n or dagoz oraindik zutik, nai eta antxiñako anda bidetzako nortasuna kotxeen eta bide barrien erreztasun eta egokitasunaren mesedean laga.

Bide Kurutzetako kurutzak mendexar guztien gogoetan irauten dabe.

Emen dagoz argazkiak oroigarri zintzo eta ziñaldari egitsu.





Esc:1. 1250LC

1
0

MENDEXA

- 1 - Sta. Lucia
- 2 - San Juan Bautista (.gal **du..**
- A - Parroquia: San Pedro ad Vincula

INSTITUTO LABAYRU
ETNOGRAFÍA

ARTXIBOAK

Erri bakoitzeko liburu zarretan gordeten da bere istoria, bere bizia. Batzutan zaratatsu izana, bestetan ixilla.

Eta antxe, liburuetan, danak alkartzen dira: gordinkeriak eta labankeriak; indarkeriak eta bake-alegiñak; garitzak eta burumakurtzeak; aberastasunak eta zorrak.

Kondaira, istoria, beti da jakingarri, eta nai ta paperetan ixillean zaindu, an ikusten dira gizonak eta erriak, sinistekak eta oiturak, saldukeriak eta zintzotasunak.

Mendeja'ko liburuak, gaur, toki bitan dagoz.

Eleizakoak, parrokiakoak, Bizkai'ko Gotzaindegiak Derio'n daukan artxiboan.

Errikoak, erri-zaintza eta erri erabilkerakoak, udaletxean.

Mendeja ezagutu nai dabenak, lengo gizaldietan sakondu nai dabenak, geien be or dauke euren iturria. Ñai eta Gernika'ko Batzar etxeko artxiboan be azken gizaldi bitako agiri batzuk egon, eta Bilbo'n, Aldundiko Artxiboan be, erritik kanpora urtetan eben gaiak buruzkoak aurkitu. Zoritxarrez banaka batzuk.

Derio'ko Eleiz Artxiboan dagozan Mendeja'ko liburuak oneik dira:

Pedro deunaren parrokiakoak:

Bataiatuenak	1585-1843 bitartekoak.
Ezkonduenak	1593-1784 bitartekoak.
Illeenak	1583-1743 bitartekoak.
Sendotza artutakoan	1604-1831 bitartekoak.
Erroltzea	1886-1966 "
Santa Luzia ermitakoak	1656-1896
San Kristobal eta Santa Luzia	1896-1966
Artu eta emondako mezuak	1908-1968

Eleiz-etorriak (Fabrica)

Sakristiko kapellautza	1735-1791	
Betirakoak	1820-1956	//

Anaidi eta kofradiak.

Arimen Kofradia	1925-1965
Errosario eta Arimen Kofradia	1805-1957
San Pedro Kofradia	1662-1965
Santa Luzia Kofradia	1689-1967

Eleiz-erakundeak.

Liturji eta zilleizti itzaldiak	1933-1965
Batzuk	1932-1971
Guztira 31 liburu.	

Errikoak (Udaletxean)

Udaletzeko batzar agiriak.	1840-1978 bitartekoak.
Dekretu, agindu eta erabagiak	1752-1980
Eguneko gai, batzordeen erabagiak	1825-1970
Agiri eta mezuenak	1800-1984
Auteskundetakuak	1847-1979
Langilleak	1931-1931
Erri serbitsuak	1984-1984
Osakidetza	1632-1970
Kanposantua	1903-1903
Jakingarri eta egiaztapenak	1913-1919

Suztapen saillekoak.

Estadistika	1660-1984
Azpiegitura	1641-1966

Ogasun saillekoak

Aurrekontuak	1851-1982
Kontuak	1814-1984
Ziza, petxa, zerga eta abar	1843-1976
Udal ondasunak	1863-1984
Zerga eta laguntzak	1813-1984

Lan-saillekoak

Erri lanak	1898-1984
------------	-----------

Udalaren artu emonak

Agintari zibilekin	1968-1978
Guda agintariekin eta guda gaiak	1837-1984
Erakunde eta beste gizonekin	1927-1980

Udaleko ez diran gaiak

Laterriko gaiak	1772-1772
-----------------	-----------

Osoitu bakoak eta batzuk

Gai batzuk	1979-1979
------------	-----------

Zuzentza saillekoak

Auzietako noraberek	1690-1919
Konponketa ekintzak	1840-1842
Biztanleen errokketa	1831-1984
Zuzentza banakari eta beste langilleak	1826-1914
Idazkaritza	1689-1906
Orokorrak	1868-1971
Guztira 153 liburu eta 1168 legaxo.	
Paper guztiak ondo zainduta dagoz.	



MARE ERROTIA

Askoren ustea da Euskalerriko errotarik geienak XVIII garren gizaldiko gosetean egin zirala, olandarren ereduari jarraituz.

Jakiña da XVIII garren gizaldiak bere eragiña euki ebala erabide onetan. Ukatu eziña da ori. Baiña gu Algortapeko mare erroteari buruz, askoz be atzerago joan giñei.

Onetan Lekeitio'ko Udaletxeko artxiboetan ba dagoz argitasuna emoten daben agiri batzuk.

Ara:

1522 urtea.-

Joanes Olabide gaituaren irizpide bat, esaten egiteko asmoa egoan Isuntza'ko Mare-Erotaren egitura, gogor, ziur eta iraunkorra go bear zala.

1554 urtear

Karlos eta Juana Españako Errege ta Bizkaiko jaun lez emondako agindua, Lekeitio'ri baimena emoten iru mare-errotta gertuteko, Algortape, Zubietape eta Madalena'ko ietzan, aurrez Bizkai'ko Korrexidoreak aztertu ondoren auzoetakoen kalterik ba ete etorran egitura onetatik eta ala izan ezkeru salneurri zuzen baten saltzera beartuaz.



LOIBE BEKUA. MARE ERROTAREN GOI ALDEAN

1555.

Juan M. Olabide, Astigarragatar argin maisuaren lotuera eta bearpena, Algortapeko mare errotak egiteko, zeaztuten diran baldintzapean.

Olabide berberak izenpetutako agiria, egitura ori esandako baldintzen barruan egitera beartuaz eta amabost urtetara zutik eukitera.

1569.

Olabide argiñari eskaria, eskribadu bitartez, izenpetuta daukan agiria beteaz, Algortapeko errotak egitea amaitzeko eskatzen.

1569.

Lekeitio'ko Udalak zabaldutako epai-bidezkoak Olabide argiñaren aurka, Algortapeko presa eta errotetako argin-lanak ez dituelako egin, aginduta daukan baldintzetan.

1625.

Martin Zirarra, Kortezubi'ko argiñaren ordain txartela, Isuntzako mare-errotako orman 9.130 errialen kontura, berak 6.855 errial kobraten, andik gorakoa zor geratzen dala esanaz.

Ordain txartel onen aurrez, beste argin maisuen agiri bat dago, mollak egitea 830 dukatetan zeaztuaz.

1625.

Tomas Markue, Mendeja'ko arotzaren ordain txar tel bat, belloiko 600 errialen balioz, ziurtatuaz dirutza orretan tratu egiña eukala Isuntza mare errotetan tolarak ipintea.

1655.

Ba dirudi Isuntza'ko errotak saltzeari buruz auziren bat egon zala eta onetan auzi bat egon zala Juan L. Irusta'gaz. Barrero iru-egunetan pregoiak jotea agintzen da eta eurak amaitu ondoren erremata egin.



LEA' KO OSPITALA

Lekeitio'tik Oleta aldera guazala, ezkerretara, ibai egalean, etxe andi baten ormak ikusten dira. Tellatu barik, arrizko orma lodiak zutik.

Lea'ko ospitala edo ta Mendexa'ko ospitala deitzen zanaren ormak dira.

Batzuk uste dabe karlista gerratetako denporetan egindako ospitala zala. Beste batzuk Santiago'rako erromesena izan zala.

Egia au da: ia lauren urtetara jo bear dala ospital onen asiera billatzeko. Eta asiera ori azken nai edo testamentu baten aurkitzen da.

"Oññez gaixo baiña espirituz ondo nagola", diño Sevilla'n, 1602 urteko Martiaren 22'an, Domingo Leaegi jaunak egindako azken naiak.

Domingo au Mendexa'n jaioa zan, *Juan* eta Maria'ren semea, baiña aldi aretan euskaldun askok euken joera artuta, Sevilla'ra joan zan, an negoziotan sartu eta aberastu ta... banakak egiten dabena egin: erriagaz gogoratu bere ondasunak itxi bearreko denpora igarri ebanean.

Berak dirua itxi eban tokia erosi, etxea egin, oeak eta serbitzurako bearrezko tresnak erosteko. Eta orrez gain urteroko 600 dukaten errenta lez eukiteko aiña diru ipini eban.

Ospitala berrogetamar gaixo artzeko aiñakoa izan bear zan, gaiso orrei lagundu, babesa emon eta osatzeko eran, lenengo mendixarrak, eta mendixarrik egon ezik lekeitiarrak edo ta inguruko eleiz-ateta-koak.

Eta ainbeste batu ezik eta dirua gelditu, eskale txiroentzako ogia erosten eralgiteko agintzen eban, onetan be beti lenengo mendexarrei aukera emonaz.

Ospitaleko patroe bere gurasoak eta gero euren ondorengoak izango ziran, edo ta eurak egon ezik Lekeitio'ko Bikaritzta eta Lekeitio'ko Kontzejukoak, aukera eta duintasuna emonaz arduradun bat izentatzeko, beti be abade bat, gizon jator, eta bizitza zintzo eta ospe onekoa.

Leaegi jaunak, bere azken naiaren asieran agintzen eban, il ondoren frantziskotarren abituagaz jantzi egiela, eta Sevilla'ko monasterian obiratzeko, an euskaldunak euken kapillan. ("en la capilla de la nación bascongada").



LEA'KO OSPITAL ZARRA



Eta ardura ori bete ondoren geratzen zan dirutza bere gurasoei itxi eutsen eta eurei agindu euren aldetik gero dirutza ori bere eskontzatic kanpoko ziran Antoni eta Maria Leaegi'ri lagateko, al bestean eurak onduaz.

Bai eta gurasoak ondo ikusten ba eben, bere alaba orreik bere lengusu ziran Lorenzo Leaegi eta Joan Ikoaga'gaz, au da, bere lengusuekaz ezkontzeko, bere borondatea alaxe zala kontuan artuta.

Leaegi onek ondasun andiak eukazan Sevilla'n. Ez bakarrik an, bai eta Indietan eta beste toki batzuetan.

Ba dirudi dirutza orregaz ospitala laster jaso zala, gurasoak 1.608'ko Uztaila'ren 12'an ospitaleko arduraduna izentatu ebelako, azken agintzen zan eran. Arduradun ori Lekeitio'ko bikarioa zan Martin Lariz jauna izan zan.

Leaegi'ko zarrak ez eben aukera andirik euki dirutzeagaz baliatzeko. Ama il zan lenengo eta aita 1.608'ko Uztaila'ren 12'ko esandako agiria izenpetu eta laster.

Azken naiko aginduetariko guztiak bete ete ziran ez dakigu, baiña ezkontzetatik bat beintzat egin zan, Juan'en semea, Lorentzo, azken naiean izentatzen ziran ezkontzatic-kanpo alabetako bategaz, Antonia'gaz, ezkondu zalako.

Orra Lea'ko ospital onen sortzeko eta asieretako ixtori txikia.



KOBAK

Bizkaiko Aitz zuloen, Katalogoan, koba bi agertzen dira Mendexa'ko lurraldean.

Jakiña da Amoroto, Gizaburuaga, Ipazter Berriatua eta inguruak koba zuloetan aberatsak dirala, eta bear ba da Mendexa'ko arri-artetan, gaur lurrak estalduta, orrelako toki geiago egon leikez.

Guk, Katalogo orretatik artuta, bi onein barri emoten dogu:

Algorta I Koba.

Lekeitio'tik Mendexa'rako bidean dago, kilometro batetara dago, bidearen eskumatara, piñadi arteko sakoneta bat igarota, Algorta edo Alkorta baserriaren inguruan.

Algorta II

Lekeitio'tik Mendexa'ra duan bidean dago, lenengo kilometro inguruan eta ezkerretara. Sarrerako aoa 0,70 luze eta 1,40 zabal, maldan berakoa eta gero 8 metro sakoneko leiza-zuloa (potzua).





MENDEXA'KO ITXAS EGALA

Mendexa inguruko itxas ertza, polita da eta atsegiña, aitz eta arri artez betea, itxas mutur eta zuloetan ugaria.

Or doguz Ondarroa'tik Lekeitio aldera goazela, Berriatua'ko lur egiten diran Anakabe, Mokopia eta abar igarota,

Gurbiztapia,
Baurdopia,
Maurika baso,
Txanterreka,
Amezala,
Txepetx-biapia,
Uradario,
Baixa nagosiak,
Anperna arria,
Arri andia,
Endaipia,
Egiluz,
Gaztañapia,
Arbaltz,
Artazabal,
Labia,
Bastar arria,
Txurrueta,
Karrazpio,
Kurlutxu...

izen bakoitza nun dagon edo zer dan adierazoten.

Inguru oneitan ba dagoz toki ondartsuak. Ala liburuetan irakurten danez, Lekeitio eta Ondarru bitartean, Endaidi eta san Nikolas ugarte bitartetan, eun oin inguru ur-azpian, ondar garbia dago.

"Saustan" gaur mariñelak esaten daben lez, edo Sausaten paper zarretan irakurten dan lez, ondo sakondun tokia da eta ondartsua.

Itxuraz lengo deporetan inguruko frutu eta gauzak toki oneitan itxasoratzen ziran, ala diño Labayru'k bere Historia de Bizka'ko IV liburuko 509 orrialdean. Bere esanetan bai gauzak kanpora bialtzeko eta bai erbestekoak bertan sartzeko, toki oneik erabiliak izan ziran.



1.812 urtean Sir Home Poffan ingeles almirantea bere ontzi tal

Bizkai inguru onetara etorri zanean, Endaidi aurre onetan geratu zan. Iru ontzi andi, bost fragata eta bergantin bigaz egon zan bertan eta ba ekiazan leorrerako osterak egiten eta frantzetarrei ostopoak ipinten, inguru oneitan eukezan kañoi eta abar apurtu eta desegiten aleginduaz.


Orduko paperetan irakurten danez, inguru oneitako erriak bildurrez biziarren, erriei ez eutsen kalterik egiten eta errietatik eroaten eben janari, edari eta bestelako gauzak ordainduta eroaten zituen.

Gaur itxasertz inguru au piñu eta eukaliptus'ez beteta dago, Mendexa inguru onetan.

Bestetik Mendexa'k berea dau Karraspio ondartzta luzea, san Nikolas ugartearen aurrean.

Karraspio izena dala ta ba dira diñoenak Karraspio ori Garrazpia'tik ez ete datorren.

Ori toki izenetan aituak diranen zeregiña da. Guk aidean artutako itaun edo kezka or lagaten dogu. Gaur beintzat gaitz izango litzake Karraspio deitura kentzea, deitura ori dalako ofizialki erabilten dana.



MENDEXAR ARRANTZALIAK ETA LEKEITIARRAK

Mendexarrak ez dira baserritar uts izan.

Euren oiñetan, euren lurrak buztiten itxasoa daukela, bidezko zan itxas zaletasuna eukitea be.

Igarten danez, XV-XVI garren mendean, eta geroago be, arrantzan ibiltzen ziran eta euki zituen euren txalupak be, bai eta eurak arraiña saltzeko bentetxe berezia be.

Franzisko Okamika'ren "La Villa de Lekeitio"tik onelako jakin-garri au be atara giñei.

Itxuraz, lenengotan, lekeitiarren txalupetan ibiltzen ziran mendexarrak. Bidezko da itxas kaia Lekeitio'n egon eta angoak izatea txalupa eta ontzitegiekaz arduratzen ziranak eta angoak izatea jau-beak, naiz eta tartetan, beste toki askotan gertaten zan lez, auzoeta-koak be euren diruak orretan ipini.

Baiña aldi aretan gerra laiñoak igarten ziran nun-nai. Erregetza eukenak alkarren artean asarre ibiltzen ziran eta sarri itxasoetan gudaketak egin edo ta itxasontziekaz baliatu erri batek bestea menderatuta eukiteko arrokeria ebillalako.

Ori zala ta, itxasontzietarako, gerrako itxasontzietarako gizonak eskatuten zituen. Eskabidea Lekeitio'ra joaten zan, baiña lekeitiarrak, euretariko baten bat askatzearren, ipaztertar eta mendexarrak be mariñelen zerrendan sartu nai izaten zituen, txalopetan ebiltzala eta eurak be itxas serbitsura beartuta egozala esanez.

Mendexarrak asarretu egin ziran jokabide orregaz eta orretarako ukatu.

Ukapen ori ikusita lekeitiarrak euren arrantzale Kofradiatik kanpora atara zituen mendexarrak.

Egoera larri orretan urte bi inguru igaro zituen. Urtenbiderik eta konponketa nairik ikusten ez zalako, mendexarrak euren txalopak gertu zituen, eurentzako barriak egin, eta euretan arrantzara joaten asi. Eta arraiña molletan saltzen asi ziran, Kofradiatik kanpora, ango arduradunei tratuan sartzen laga barik, eta ango Kofradiari ezelako irabazirik emon barik.

Lekeitiarrak erriko alkatearengana jo eben, asarrea agertu eta esku artzeko eskatzen. Mendexarrak gorago jo nai izan eben eta Korrexidorearengana zuzendu ziran.



Gauzak orrela egun baten, besigu ugari arrantzatu eben ec un baten, 480 besigu ostu eutsezan lekeitiarrak mendexarrei. Paperak esaten dabenez 40 amabiko edo dozena. Lapurreta au ez eutsen egin Lekeitio'ko mollatik, ordurako Zubieta inguruan, euren lurraldean gertuta euken molian lotuta egoan txalopa batetik baiño.

Ori egitea Foruen aurka jokatzea zan, Foruak diñoelako Bizkaitar guztiak aske dirala saldu ta erosketak nai daben tokietan egiteko.

Bitartean Korreidorearen adiskide zan Adan de Yarza ebillan mendexarren alde eta arek lekeitiarrak zigortu zitulako, gero ta geiago garraztu eta naastu zan auzia.

Mendexarrak lekeitiarrei makurtu eragin naian, arraiña molletarra atara barik, euren toki berezi orretan ataraten asi ziran, eta gero kaira (portura) eroan txalupa an lotzera, itxas sartu-urtenetarako gertu euki al egien tokira.

Onelako jokabideak ezagunak izan dira geiagotan be, baiña askotan ez bestien asarez, norbere eskubideei zintzo eustearren baiño. Izan be Bizkai'ko erabideak, uri eta eleiz-ateetan lege ez bardiñekaz araututa egotean, bakoitzaren eskubide berezieren autua sarri gertaten zan eztabaidagarri eta asarre luzetako su-bizi.



KAXAR RAN KA ETA MENDEXARRAK

Kaxarranka lekeitiar arrantzalien dantza berezia da.

Kontuak garbi erabiltera oituta egozan arrantzalien maiordomuak, euren kutxaren gain egiten eben dantza alaia, Ondarrabian neskatilla bat izaten dan lez txukun eta arro kutxa ori aidean erabilten dauana.

Baiña ba dirudi, dantza au, antxiña, ez zala egiten gaur ikustera oituta gagozan lez, gaurko jantziekaz, eleiz-jantziekaz baiño.

Abadeak izaten ziran geien bat asarreak agertzen zituenak, Eleizaren lotsagarritzat salatuaz dantza bitartean egiten ziran baldarkeri ugari. Origaitik, denporak joan eta etorri, batzutan itxi ta bes-tetan garrazkeriz salatu egiten zituen eta lortu eben iñoiz ostopoak ipinteko, Lekeitio'ko abadeei eleiz- jantziak orretarako emotea.

Alaz eta arrantzaleak ezin eikien jai ori bastertu. Gaitz izaten da erri txikietan euren oiturak aldatu eragitea.

Azkue be izan zan orretako jakingarriak batzen ibili zana eta onetan Okamika'k bere Lekeitio'ko kondairan aren esanak aintzat artuta ibiltzen daki eta arek esana gogoratu.


Urte baten, jaleetan 20 dantzari ebiltzala eta beste iru, apostoluen irudi, jantzi gorriekaz. Itxuraz egun aretan Obispaduko lkerlaria egoan, bear ba da salakuntzaren bat bitarteko egongo zalako, eta ori jakin eben Lekeitio'n. Eta dantzariak lkerlari ori egoan etxearen aurrera joan, bertan geratu eta areri min emotearren dantzan ekin eutsen.

Abadeak konturatu ei ziran jantzi areik ez zirala Lekeitio'ko parrokoak, Mendejakuak baiño. Ori ikusita Gotzaiñaren ordezkariak alkate biei deitu eutsela eta alaxe lortu ebela San Pedro iruditzen ebanari bere kapa kentzea, baiña beste biak iges egin ebela.

Ba dirudi urteetara gauzak konpondu egin zirala, batez be Kalagorriko Lepe gotzaiñak 1690 urtean egin eban eskabideari arrantzaleak makurpena erakutsi eutselako.

Urte orretan Lepe gotzaiña Lekeitiora etorri eta Kofradia'ra joan zan arrantzaliekaz batzera.

Eta an, ango nausien aurrean, erregutu edo mesedez eskatu ei eutsen batuta egozanei, Kaxarranka dantzatu bear zanean, dantzaria, abadien albagaz barik, praka zuriz jantzita agertzeko eta gerriko gorria erabiliaz. Au da, alba zuriaren ordezkariak, eta kapa gorriaren ordezkariak, gerriko gorria.



Zegaitik erregutu edo mesedez eskatu, eta agindu ez?

Ziurretik obispo orrek kontuan eukiko ebalako urte batzuk lenago, 1655 urtean Lekeitio'n gertatu zana.

Arrantzaleak eta eleizgizonak eztabaida eta auzietan ibili ziran. Zegaitik? Ba San Juan jaiak eta San Pedro jaiak zirala-ta.

San Juanetan aren ermitara ostera bat egiten zan eta tratua eginda euken abadeak bonete eta manteoagaz joatea. Eta danak joan bear ziran, gaxorik egon ezik. Baiña abade batzuk ez eben jaramonik egiten, eta bestelako kapelakin batzuk, beste batzuk joan be ez, tratua apurtzen asita egozan.

Oiturazko zan baita be Kofradiak San Pedro egunez Kaxarranka egitea eta bertan gizon bat beintzat kasulla eta mitragaz joatea, bedeinkapenak emoten, eta abadeak, euren tokian, kapakin eta sobrepellizakin joatea, beste ezeri begiratu eta jaramon barik.

Baiña abadeak or ebiltzan aitzaki billa.

Ain zuzen be urte aretan, 1655'n, Juaniz gotzaiña Lekeitio'ra joan zan, gauzak ikusi zitun, eta ba dirudi Kofradiako Maiordomoei errazoia emon eutsela.

Beraz Lepe gotzaiñak ba ekian lez Kaxarrankako jai orrek egiten zan antzera bere aurretikoen on ikusia euki ebala, origaitik agindu ordezkatu egin eban. Eta konponbidea lortu.

Dana dala ba dakigu Mendexa'ko eleiz jantziak iñoiz Lekeitio'ri balio izan eutsela Kaxarranka jaia, oitura zan lez egiteko.

KAXA ANKA

PRIMER PERÍODO

PRIMER PERÍODO

SEGUNDO PERÍODO

Inter

10 11 12 (Bis) 1 2 3

7(a) Cla(PRÍODO

4 5 6 7 8 9 10

T(Re(a) PÍNODO

11 12 (Bis)

c

PRIMER PERÍODO

1 2 3 4 5 6

7 8 9 10 11 12

SEGUNDO PERÍODO

PRÍODO

7 1

1) IPEKO

f

PRIMER PERÍODO

g 1 2 3 4 5 6

ARIN-ARIN

7 8 9 10 11 12

SEGUNDO PERÍODO

1 2 3 4 5

6 7 8 9 10 11 12

FIN

ISUNTZA'KO ZUBIA

Mendeja'k Lekeitio'gaz alkartzeko eukazan bidetan, oztopo bat eukiten eben Lea ibaian.

Len egozan zubiak sarri eroaten zituen tatarrez uriolak.

Ain zuzen Mendeja'n bertako parrokia lortu naian ibili ziranean, Lekeitio'ko parrokitik bananduta jaubetasun eta eskubide guztidun parrokia bertan sortzea eskatu zanean, bideak eta batez be ibaia igaroteko arriskua erabili ziran mendexarren aldeko errazoitzat.

Sarri irakurten da denpora zarretako gertaeretan, Isuntza'ko zubia, Oleta'koa eta abar, inguru onetan, tatarrez eroanak izan zirala.

Okamika'k bere La Villa de Lequeitio liburuan, 229 orrialdean diño, 1593 en uriol andiak egon zirala, eta inguru onetan Isunza, Lea, Gabiolea eta abar jausi eta beratu zirala, bai eta Amoroto eta Oleta'ko errotrak be.

Origaitik denpora luzetako kezka izan zan Lea ibaiaren gorakadetatik azke geratuko zan zubi andi bat egitea.


Itxuraz 1770 urtean egin zan barri bat, baiña egitean euskarritzat erabili ta euki eban mako-azurra edo gangadura kentzean, zubiaren arkoa jausi egin zan.

Barrero 1774-1775 urtetan egin zan.

Zubi au 149 ta erdi oin inguruko begi bakarrekoa egin zan eta bere egitasmua (plangintza) Calderon abadearena izan zan.

Gero Lekeitio'tik Ondarroa'rako bidea egitean, bide onetarako egokitu zan, sarrerak eta urteeretak aldatzak bardinduaz.

Zubi onen erdi-erdian mugatzen da Lekeitio eta Mendeja arteko jaubetasun eskubidea.



ISUNTZA'KO ZUBIA

OREIN BERREUN URTE...

Baserri jaubeak eta errentan erabilten zituenak

Jakingarri izaten da eta erri bakoitzaren nortasuna erakusten dabe, zenbat baserri jaube berberak erabilten zituenak egozan eta zenbat famili bizi ziran iñoren etxetan eta iñoren lurretan lan egin bear ebenak, etxe eta lurak erabiltea askotan morroitza eta men petasun batean biurtuz.

Orain berreun urte, orduko agirietatik ikusi leikenez, ogei ta bat (21) baserri egozan Mendeja'n jaubeak eurak erabilten zituenak. Ordez 27 (ogei ta zazpi) baserri ziran erreteruak erabilten zituenak. Konparaketa egiteko eta errenten gora bera jakiteko be, baserri bakoitzak eukazan ordaindu bearreko lotuerak agertzen doguz.

Zeaztasun oneik Gernika'ko Batzar Etxeko Artxiboak atara doguz eta "Razón de rentas de caseríos y molinos que se hallan en arrendamiento, N^o 87, deitzen dan bildumatik atara doguz erreteruenak. 1795 urteari dagokioz.

Irakurle bakoitzak berari dagokiona errezago billatzeko, alfabetan ordenan agertuko doguz baserrian izenak, nai eta agiri aretan nastean egon.

Erreteruak

AKERREGI.

Jaubea: Jose An t. Ibaseta, abadea.

Erreteruak: Jose Iturraspe eta Iñazio Arrasate.

Berriatua'koa.
(Arduraduna)

Errenta: 30 dukat urteko.

ALGORTA

Jaubea: Pedro Algorta, Lekeitio'ko bizilaguna.

Erreteruak: Pedro Etxezabal eta Jose Laka.

Errenta: 40 anega gari urteko.

ARRASATE GOIKUA

Jaubea: Lekeitio'ko Jesulagunen Ikastetxea.

Erreteruak: Jose Amezti.

Errenta: 44 dukat urteko.

ASKAITURRETA (ESKAITURRETA)

Jaubea: Jose Goiria, Lekeitio'ko bizilaguna.

Errenterua: Migel Landetar
Errenta: 27 dukat urteko, eta zortzi urtetik beingo mendien ebagite bakoitxeko amabotz karga ikatz.

ETXEBARRI ITURRETAKOA.

Jaubea: Murelaga'ko Kortazar'eneko kapellautza.

Errenterua: Juan Asumendi.
Errenta: Amasei dukat urteko.

IKOAGA BEKOA

Jaubea: Manuel Zerella, Madrid'ekoa.
Arduradun: Jose Aboitz, Lekeitiokua.

Errenterua: Franzisko Zelaia.
Errenta: 60 dukat urteko eta zortzi urtetik beingo baso ebagitean, sei karga ikatz.

IKUTZATXU

Jaubea: Isidro Elorriaga, Murelagakoa

Errenterua: Domingó Urresti
Errenta: Amalau dukat.

ITURRASPE.

Jaubea: Jose Iñazio Unzeta.

Errenterua: Domingo Iturraspe.
Errenta: 14 anega gari urteko.

IPIDEGI

Jaubea: Bixente Jose Etxezabal.

Errenterua: Jose Txakartegi.
Errenta: Oaetalau dukat urteko.

ITURRATE ERDIKUA

Jaubea: Lekeitio'ko Jesulagunen I kastetxea.
(Arduraduna: J. Alexo Ormaegi.)

Errenterua: Juan Laka.
Errenta: Ogei ta zortzi dukat.

ITURRATE GOIKUA

Jaubea: Lekeitio'ko Jesulagunen I kastetxea.
(Arduraduna: J. Alexo Ormaegi.)

Errenterua: Agustin Goitiandia.
Errenta: 283 errial.

LEA BASTERRETXEA

Jaubea: Antonio Adan de Yarza, Bilbo'ko bizilaguna.
(Ardulari: D. Martinez Terroba)

Errenterua: Juan Abaroa.
Errenta: 40 dukat eta 38 karga ikatz zortzi urtetik beingo baso ebagitean.



LEA BEKOA

Jaubea: Babil Areizaga.

(Arduradun: Juan Zabala, Lekeitiokua.)

Errenterua: Jose Goenaga.

Errenta: 27 dukat, mendi eskubide barik.

LEA ETXETXUA.

Jaubea: Ant. Adan de Yarza.

(Arduradun: D. Mtnez Terroba.)

Errenterua: Domingo Amias.

Errenta: 40 dukat eta beste 30 karga zortzi urtetik beingo baso ebagitean.

LEAGI AURREKOA

Jaubea: Manuel Urresistieta,

Mutrikukoa.

Errenteruak: Bautista Goikoetxea eta Jose Goikoetxea.

Errenta: 8 dukat dirutan, 16 anega, agaritan eta zortzi urtetik beingo baso ebagitean, 30 karga ikatz.

LEAGI TORREA

Jaubea: Ant. Adan de Yarza.

Errenteruak: Domingo Uskola, Migel Abaroa eta Iñazio Erkiaga.

Errenta: Iruren artean, eun dukat dirutan, eta zortzi urtetik beingo baso ebatean, berreun eta irurogei ta lau (264) karga ikatz.

LOIBE BEKUA

Jaubea: Joseba Xabiera Landaguren.

Bilboko bizilaguna.

Errenteruak: Migel Abaroa.

Errenta: 40 dukat urtean eta zortzi urtetik beingo baso ebate ordeaz 30 ikatz karga.

LOIBE GOIKUA.

Jaubea: Migel Manso, Herbias'ko

kondea. (Arduradun: Manuel Meabe)

Errenteruak: Franzisko Aldekoa.

Errenta: 24 dukat eta 5 errial.

LIKONA ERDIKUA

(Auzietan dabil jaubetasuna)

Errenterua: Migel Zelaia.

Errenta: Bost dukat eta 3 anega gari.

LOÑIKIZ TORREA

Jaubea: Bixente J. Etxezabal,
Ñatxitua'ko Ea'n bizi dana.

Errenterua: Migel Barrundia.
Errenta: 27 anega gari. Mendiak
jaubeak erabilten dauz.

MARKUE

Jaube: Katalina Atxurra, Lekeitio'n
bizi dana.

Errenterua: Franzisko Zilloniz.
Errenta: 40 dukat dirutan.

MEÑDEXAKUA

Jaubea: Jose Iñazio Unzeta,
Lekeitio'n bizi dana.

Errenterua: Juan Aranbiorokua
eta Domingo Zelaia.
Errenta: Amazazpi anega gari eta
amazortzi karga ikatz zortzi urte-
tik beingo baso ebagitearen
kontura.

MEÑDIBE

Jaubea: Jose A. Oxangoiti,
Lekeitio'ko bizilaguna.

Errenterua: Juan Axubita.
Errenta: Amabost dukat dirutan.

TELLERIA

Jaubea: Antonio Adan de Yarza.

Errenterua: Pedro Balencia.
Errenta: 20 dukat dirutan, baso
eskubide barik.

USKOLA BEKUA

Jaubea: Balentin Mugartegi,
Markiñan bizi dana.

Errenterua: Agustin Abaroa.
Errenta: Amar anega garitan
eta berreun errial dirutan.

ZELAIA edo TORREBARRIA

Jaubea: Lekeitio'ko Jesulagunen
I kastetxea.

Errenterua: Martin Amezti.
Errenta: Ogei ta sei dukat urtean.

ZULUETA ERROTA

Jaubea: Bixente J. Etxezabal.
(Auxe da Eleiz- ate onetan dagon
errota bakarra.)

Errenterua: Josepha Bergara,
alarguna.
Errenta: 50 dukat dirutan,
sei anega gari eta anega bat
arto.



Oarra: Lekeitio'ko Jesulagunen Ikastetxearen jaubetasuneko diran ITURRATE GOIKUA, ITURRATE ERDIKUA, ZELAIA (TORRE-BARRIA) eta ARRASATE GOIKUA baserriak emoten dabek ikatza, Lekeitio'n saltzen da, erri-enkante edo errematean.

Jaubeak eurak erabilten dituen baserrien emaitz eta onuren balioa, erriko goraberetan kontuan eukiteko. (Gernika'ko Batzar Etxeko Artxibuko "Regulación de Rentas de Caserías que manejan sus Dueños Propietarios. Mendeja." agerpenetik atarata.)

AGIRRE

Jaubea: Pedro Xabier Algorta. Errenta: Berrogei dukat.

ALDEKUA (LEAEGI ALDEKO)

Jaubea: Juan Atxurra Errenta: Ogeitamar dukat.

ALLONA

Jaubea: Jose Antr Goitiandia. Errenta: Ogeitamar dukat.

ARRASATE ERDIKUA

Jaubea: Domingo Leniz. Alkatea. Errenta: Ogei ta bost dukatr

ARRASATE NAGUSIA

Jaubea: Iñazio Akerregi. Errenta: Berrogei dukat.

BIZO ZELAIKUA

Jaubea: Jabier Goitiandia. Errenta: Ogei ta bost dukat.

ENDAIDI

Jaubea: Domingo Aranbioaskua. Errenta: Ogeitamar dukat

ERREMENTARIKUA

Jaubea: Agustin Uskola. Errenta: Ez da agertzen.

GOXEASKO ZELAIA

Jaubea: Martin Urizarren. Errenta: Ogei dukat.

IKUTZA

Jaubea: Juan Erkiaga. Errenta: Ogei ta amar dukat

IKUAGA GOIKUA

Jaubea: Santiago Amerezti. Errenta: Ogei ta amar dukat.

ITURRATE BIASKUA

Jaubea: Manuel Leniz.

Errenta: Berrogei dukat.

LEA GOIKUA

Jaubea: Pedro I. Egurrola.

Errenta: Berrogei dukat.

LIKOÑA

Jaubea: Agustin Abaroa.

Errenta: Ogei ta bost dukat.

LIKOÑA ERDIKOA

Jaubea: Domingo Akerregi.
(Erdiarena)

Errenta: (Erdiarena) Ogei ta bost dukat.

LIKOÑA ZABALA

Jaubea: Jose Zilloniz.

Errenta: Berrogei dukat.

LOÑIKIZ

Jaubea: Kristobal Arrizubieta.

Errenta: Berrogei dukat.

SAÑTIAGOEÑA

Jaubea: Jose Okamika.

Errenta: Ogei ta amar dukat.

TORRE NAGUSIA

Jaubea: Bartolome Uskola

Errenta: Amasei dukat.

TOARETXUA

Jaubea: Antonio Akerregi

Errenta: Amabi dukat.

USKOLA GOIKUA

Jaubea: Santiago Abaroa.

Errenta: Ogei ta amar dukat.

Erriko aberastasunak

Etxeen onurak agertu eta zegaitik ez eleiz-ate edo erri berberak eukazan sarrerak?

Urte orreta, 1795 urtean, Mendeja'k, erriko etxe, solo, mendi eta emaitzetarik, urte guztian 345 erria) (irureun eta berrogei ta bost errial) lortzen zitun.

Ara zetatik edoo zegaitik:

Alokatuta eukan udal etxeko bizitokia
Lea inguruan erriak daukan sobaren

30 errial urteko

FRANTZETARRETATIK IGESKA

Milla zazpireun eta larogei ta amalau garren urteko Dagonilla-ren (Abuztuaren) azkenetan, frantzetar gudariak Ondarroa eta Ermua'n sartu ziran.

Bizkai gutzia gertu zan frantzetarren erasoaldiari al zan bes-tean erantzutera.

Batez be Mendeja inguru au bizkaitar gudari taldeekaz bete zan, arriskua egoalako areik Berriatuatik Lekeitio aldera joko ebela alde batetik, eta bestetik Ondarroa'tik Mendeja'ra zuzen jarraituaz etorriko zirala, Lekeitio tartean artu, eta inguratu ondoren, mendetu-teko.

Ondarroa'n kalte asko egin zituen. Gizonetan eta erri egituran. Erririk geienari su emon eutsen eta bertatik urtetean ogetak lagun baituta Frantzera eroan zituen eta geienak urte bete baiño len ango kartzeletan il zirala jakin zan. Eta Antigua'ko eleizan be lapurretak eta sinismenaren laidozko ekintzak egin zituen.

Ondarroa'ko sarreran gogor egin eutsenetako bat, an abade egoan Juan Antonio Angulo izan zan. Eta frantzetarrek bertan bere ibilli ziran eta iges egitera beartu zan. Ondarroa'tik Lekeitio'rako orduko bidez igeska etorrara, bero eta nekearen ittotasunari eta larritasunari eutsi ezinda, Mendeja'ko inguru onetan il zan.

Ondarroa'ko parrokian agertzen dan agiriak, lldakoen seigarrren liburuko 55 orrialdean au diño:

"Milla zazpireun eta larogei ta amalauko Dagonilla'ren ogei ta zortzian, berrogei ta zortzi urte eukazan Juan Antonio Angulo il zan, azken eleiz parkamenak bakarrik baldintzapean artuta, Ondarroa'ko parrokiko benefiziadu ordeko eta Bilbo'ko kapillau zala.

Bere gorputza Mendeja'ko parrokian obiratua izan zan, lurralde aretan il zalako, frantzetarrei igeska eioala. Bere ondasunei buruz ez eukan ezer erabagita. Orren ziurtasuna Ondarroa'ko parroko eta inguruko Bikario lez ziurtatzen dot. Jose Iñazio Egiguren."



MENDEJA, KANPOSANTUA

JAIETAKO DANTZAK ETA NASTEAK

Bizkai'ko Aldundian, Korrexidorearen Ordekoaren Artxiboan, 686-19 zenbakiagaz, saguak edo beste zerbaitek egalak jandako agiri txorta bat dago.

1764 urtekoa da.

Juan Antonio Gumuzio eskribaduaren eskuz idatzia.

Bertan esaten da, Mendaxa'ko eleiz-atean, il onen 12 igandearen urrengo gauean, eta muga deitzen dan tokian... ("la noche siguiente al día Domingo 12 de este mes, cerca del puesto llamado la Jurisdicción") buru eta soñean zaurituak izan zirala Arizpe'ko Jose, amorotoarra eta Zilloniz'eko Jose, mendexarra, eta euren etxetara eroanak izan zirala borondate oneko batsuen bitartez, eta osagillearen laguntzak artzen gozala.

Batek burua askatuta eukan eta besteak besoa zati bitan apurtuta.

Jose Arizpe lurrekoa baserrikoa zan, eta Zubieta'ko olan lan egiten eban, tiradore lez, au da, txikitzaile.

Jose Zilloniz, bere aldetik, Mendexa'ko Likona Zabala'koa zan.

Arropain tabernan egon ondoren, Abe Maritakoak jo ondoren, etxerako asmotan joiazala, Leaburu'ko ariztian, Juan Cruz Urresti eta beste ainbat lagunekaz batu ziran, onein artean Domingo eta Paulo anaiak eta Juan Etxaniz eta Jose Elu berriatuarrak.

"Agur jaunak" esan eutsiela onei eta aurrera joizela igarri ebela talde orretakuak aupadaka asi zirala.

Alkarri zirika asi zirala, Mendexa'ko jaietan dantzan egiteko aukerarik ez eutselako emon, eta andik laster makillakadaka asi zirala. Lenengo Domingo jo ebela eta gero Zilloniz eta bestea.

Basoan geratu zirala zirkiñik egin ezinda eta ango zaratak oartuta eta entzunda Barbara eta Teresa Arizpe bere alaba eta Juan Antonio Arriandi, ispasterarra urreratu zirala eta etxetara eroan zituela.

Korrexidorearen ordezkaria etxetik etxe ibili zan gaixo ta zaurituei entzuten.

Azken baten zaurituak ez eben auzietara jo nai izan eta eginda-ko kaltea parkatu eben, baiña besteak auzietako kostuak ordaindu bear izan zituen, milla ta amasei errialetan zeaztu ziranak, osalarien txartel eta kalteen orde.

Orra jaietako dantzen ondorenak.

Jakingarri da auzi au Foruko bigarren legeko bederatzigarren atalean agintzen dana betetako egin zala.

Origaitik, ain zuzen, parte artu eban eskribaduak.

Onela diño Foruko lege eta atal orrek:

II Legea.— Zigor-auzietan argibideak eta egiztagarriak zelan jaso bear diran.

"Baita, esan eben: Onelango auzigai ta salakuntzak etorri ezkeru, Korrejidoreak berak edo onen Ordezkarriak bere zeregiñakaitik edo beste zerbaitegaitik ez dauala legearen arabera egiztagarriak jasoten, lege auste aundia izanda bere, argibide ta egiztagarriak jasotzea Auziaren Eskribauari edo salatariak izendatzen dau-nari leporaturik; eta auziari buruzko egiztagarriak ixil-mixilka ta beti egiazkoak jasoten zituela; et Bizkaia'n alderdikeri ta areriokeri aundi diralako eta guzurrezko Lekukoentzat tormenturik ez zalako, salatu izan ziranei kalterik eta okerrik ugari etorten jakela. Orregaitik, Foruz, usarioz eta oituraz ebela eta Legetzat ezarten ebela, Korrejidorea eta onen ordezkaria, Artzaille Esku-ordeagaz batera, Egintzaz zintzoa ta legebidezkoa ta zin egindako euren Aldun izango dan euren Auzitegiko Eskribau laguntzaille bat bialtzera beartu daitezala, eta egiztagarriak zintzoro ta egitan jasoko dituela legearen arabera Eskribau biei zin eragin dagioela, eta Epai-kariari baiño beste Mori zuzenka naiz zearka agertu baga, iragarri arte aopean euki dagiezala; eta au, lege-auste orregaitik eriotza edo gorputz-zatiren bat ebatea edo odolaren isurtea edo zígorkadak edo betirako erbesterartu bearra jazo daitekela Epai-kariak ikus dagianean soillik, eta laguntzaillea Salatariaren pentzutan doala; eta berberak Lekukorik geiago Epai-kariagana aitatuturiko laguntzailerik baga ekarri nai ba dau, ori beraren aukeran izan beite; olakoan, baiña, Lekukoak aztertzen diranean, Epai-karia bera bertan izan daitela; eta lekukoak gaztelerarik ez dakien euskaldunak izango balitzaz, aztertu dagizala egiztagarriak beste Artzaille eta Itzultzailleren bidez, jatorik. Beste kasu guztietan barriz, Epai-kariak izen onekoa dan eta irugarren maillaren barruan Salatariaren senide edo koñau ez dan edozein bizkaitar Eskribauren ardurapean itxi daikela argibi-de ta egiztagarriak jasotea. Au egin eta bete zigor onenpean egin daitela: gorago erabagitakoaren aurka agertu ta jaso diran egizta-garri ta argibideak norbaitek salatzen baldin baditu, utsak eta indarrik eta ondorenik eta aztarrenik eta agergarririk bagakoak izan dai-tezala; eta (salatu izanak eskatu ezkeru) leen izkribua jendeurrean alik eta lasterren erre daitela, bir-idatzirik eta leen izkriburik gelditu baga, onan ekarritako Lekukoak baituak izateko bidea kentzeko: eta auzi eralketa, kalte ta geitu diran etekin guztiak alderdikoei ordaintzera Epai-karia beartu daitela, gaiñera."

AURRESKOA OILLAR JOKOA?

Liburuetan irakurten da.

Aita Donosti musikalaria ospatsua Londres'era joan zan baten, euskaldun jator batek, Angel Gondra Garro jaunak, aurrekuari buruz berak ekian irizpide bat agertu eutsala.

Bere esanetan Mendeja'ko baserritar agure bategandik ikasi eta batu eban irizpide ori.

Au da:

Aurrekuia dantzatutean etenbako ijutea, jauzketa, brinkoaren ritrnoa zaindu ta erabili bear dala, aurrekuia oillotege baten iruditua dalako.

Aupadea (dedafioa) ez da besterik oillar joko bat baiño. Era berean, aurrekuaren bigarren zatia, kontrapasa, deitzen dana, aurrekulari irabazleak bere lagunari ederkatura egiten dautsona, oillarrak oilloei egin eta erakusten dautsen adigurearen antzera, eta bardin azken zatian, zortzikoa dantzatutean, garaitza lorpenaren ezaugarritz dantzan jarduten danean.

Mendexar agurearen ikuspegi zorrotz au atsegiñez jaso ei eban Aita Donosti'k, sinisgarri itxura emonaz.



KUTUNAK

KUTUNĀK ezagunak izan ziran gure denporetan be, euskaldunen artean.

Ba dirudi gaur euren ezaupidea asko galdu dala edo galtzeko zorian dagola eta erabillera beintzat gaur bapeza dala.

Ala ta guzti be uste dogu oraindik ama zarren batek erliki lez gordeta euki leikezala batzuk komoda zarren baten

Zetarako erabilten ziran kutunak?

Ba gizakiei, pertsonei, edo aberei, ganaduei, gaitz eta arriskuak uxatu edo ta min eta gaixoak osatzeko.

Geienetan sakotxuak ziran, ondo josiak, eta barruan san Juan'en Ebanjelioko zati bat, lenengo berbak, eta ori ipinten jakon umeari bere paixan josi edo lotuta.

Toki askotan begizkoaren aurkako lez ipinten eutsen.

Begizkoa errez eragiten eben pertsona batzuk, askotan eurak nai ez da be, orretarako eskutuko gaitasun bat eukelako. Eta begizkoak jota geratzen zana, an gleditzen zan itzal, askotan luzaroko gaixotasunez. Orrelakoetan be **kutunak** erabilten ziran, batzutan osagarri lez, bestetan begizko orrenpean ez jausteko.

Orrelakoetan era askotako kutunak erabilten ziran. Len esan dogunaren gain, ogi bedeinkatuaren zatitxo bat ipinten eben, eta beragaz bateanoillo kaka eta gaur ikatza. Ala Foru, Kortezubi eta Muxika'k oituraz erabilten ziran kutunetan, Jose Migel Barandiaran'ek diñoanez.

Berberak diño Bolibar'en egur ikatza sartzen ebela orrelako sakutxoan, eta Itziar'en san Juan egunean bedeinkatutako bedar zatiak.

Beste toki batzuetan, umeei agiñak urten egioen be, kirikizu baten agiña ipinten eben kutunean eta orixe erabili eragin umeari.

Ba dirudi umeentzako kutunetan Lekeitio inguruan, ala Mendaja'ko be, zilleko korkoi zatitxu bat erabilten zala, ikatza eta zentimoko diru txikiagaz baterako sakutxuan.

Kutunak erabilten zituen andrak be, ume txikiak bular esnez astein, ugatzen gogortasunik ez batzeko.

Barandiaran'ek jakin eta batu eban emengo andrak, bularrik ez gogortzeko, zelako kutuna erabilten eben.

Andrak erabilten eben kutun orreri, ugetzarri deitzen eutsen emen. Au da: Ugatz = bular, titi arria.

eta berak diño poliedro erako kristaltxu bat zala, egal lautu edo kuadratuekaz. Erdian zulo txiki bat eukala, bertatik sokatxu edo arin lotugarria sartu eta zamatik dindilizka erabilteko.

Era bitakoak egozala: andiena, zentimetro inguruko zala lodieran. Ori zala geien erabilten zana eta besteak, zentimetro erdiko edo txikiagoak.

Olakoxeak ziran, Barandiaran'en esanetan, Mendeja'ko ugatzarriak.

Begizkoari buruz beste siniste bat be gogoratu nai dogu. Emen uste izaten eben, ume bateri begizkoa egiten eutsenean, ume arek bere senideak eskuak garbitutako ura edan bear ebala.



SAGARDAUA

Ba dirudi itxas ertzak beti emoten dautsela alako berezitasun bat, aokera berezi bat, inguru onetako lurraldeetako emaitzei, frutuei.

Edozeiñek esaten daki itxas ertzeko tomateak, bat esateko, gazitasun bardinbako bat eukiten dabela, barrualdekoen parean, eta bardin beste ortuari eta igali askok.

Sarri ikusten da, baita be, itxas ertzeko maasti eta sagastiak, bai txakoliñetarako eta bai sagardautarako, alako bizigarri bat eukiten dabela.

Ukatu eziña da Mendeja'k, bere baserri, baso eta inguruetan, gaur galdu diran sagasti eta maasti eder emonkorrak euki zitula, eta etxe bakoitza gai izaten zala urtean zear berak bear aiña sagardau gertu eta kanpoan saltzeko aiña egiteko be.

Baserri guztiak erraz batzen eben urtean urterako edaria euren sagastietan. Batzuk etxeko tolaretan gertu, besteak auzokoekaz konponduta, eta Lekeitio'ko sagardau-dendak, Mendeja'n billatzen eben urteko premiñak beteteko aiña.

Gaur be, nai ta batzuk erabili ez, tolareak daukez, edo oraintsu kendu dabez batzuk, baiña ainbat baserri izentatu leikez sagardaua egiten ebenak, eta egin leikenak.

Izenen bat basterrean geratu lei, eta orrek parkamena merezi izaten dau utsunean borondate txarrik ez dagonetan, baiña tolarak daukez.

Agarre baserrian.

Agerre bekuan.

Allona. (Emen eskuz erabiltekoa)

Arrasate Aldekoa. (Ba dirudi gaillurik nausienak orain urte batzuk kendu edo emon zituela.)

Gojeaskoa.

Ikutza.

Leaegi Aldekoa.

Likona Aldekoa.

Loibe erreka.

Uribarren goikoa.

Uskola.

Gaitz igaroko Zeuke eurak etxeko edari barik.

Izan be sagardaua, inguru onetan, asko maite zan edaria lez ezagutu zan gure zarren denporetan eta gaur be, askorentzat, premiñazko lez egiten da. Bear bearrezko.



Ñoiz sartu zan Euskalerrian?

Jakiña da beintzat Ñaparroa'ko Santxo Andiak Leire'ko Monastegiari egindako eskintza batzuen artean, au be ba egoala: "Itxas ertzean dagon Ernani'n egozan lurrak eskintzen eutsazan, bai eta sagasti eta arrain kalak be."

Agiri ori , ez da oraintsukoa. 1014 urteko Apirilla'ren 17'koa da.

Gero jakiña da, baleak emen eskastuten asi ziranean, emengo arrantzaleak Terranoba'ra joatan asi zirala arrain andien billa; bertatik joaten ziran txalopetako gizonen edaritzat sagardaua eroaten ebela ziurtzat irakurten da, bai eta sagardaua izaten ebela Terranoba'ko lurraldietan ango gizonak egiten eutsezan lanak ordaintzeko gairik onena, angoak edari onen zale laster biurtu ziralako. Eta txalupa jaubeak baserrikerik baserri ibiltzen ei ziran eroan bear zituan upe-lak batzen.

Sagardaua, edari merkea izanik, ondo zaindua zan erria eta baserrietan. Gogoratu Ondarroa'ko pregoi bat:

Gogoz entzun
eta ez izan gorra;
gaur, esan bearrik ez nun,
sagardau superiorra.
Txoriandiaz iru baso
eta lau, akaso.

OLEA ALFEREZA

Nungoa izan ete zan Olea alfereza, XII garren gizaldian, Castilla'ren alde jokatuaz, entzutetsu izan zana?

Batzuk Bakio'koa zala esaten dabe, bere oiñetxea an egoalako, beste batzuk Mendearra zala.

Dana dala, ikusi Estabilao Labayru'k, Bere Historia General de Bizkaia'ko bigarren liburuko 125 orrialdean diñonetik ataraten dogun au:

"Zaldun au izan zan Bizkaia'n Olea alfereza, Bakio'ko lez eza gutzen zana, bere oiñetxea toki aretan eukala-ta. Eta bere ondorengoak, Bakio eta Mendear'ko Oleatarrak, euren odoleko zan jaun onen aintza eta oroipenez, armarri au erabilten dabe:

Armarri urdiña, leialtasun eta iraupena adierazten dauana, eta bertan gudako lantza bat, urrezkoa, eta bertan punta biko ikurrin bat, urdiña, zidarrezko litxekaz, eta ikurrin guztiaren gaiñean zidarrezko gurutze zabal bat, zidarrezkoa izanik baita lantzaren burdiña.

Gurutzearen azpian zidarrezko eskularru bat eta bertan ebagitako esku bat eta itxas urak. Armarrria suge berde zaflatu bik ingurazten dabe, buruak armarrriaren gaiñean estalduta daukezala. Buztanak be zaflatuta igarten dira.

Beste alde, Olea onen gerrako agerkizun bat adierazten dau.

Bere lagunik geienak zaurituta eta igeska ebiltzala, besteak ilda geratuta, bera be beso baten zauritu eben eta ala ta be Olea! deitzen jardun ei eban eta orrela ebillala bigarren besoa ebagi eutsanean. Alaz eta makurtu nai ez eta deadarka jarraitu. Ori ikustean gudari batek eztarritik sartu ei eutsan bere izkillua eta ixildu eragin. Orduntxe lortu ei eben aragoitar eta naparrak berak erabillan Castilla'ko ezaugarria kentzea.

Istori egille berberak, bere lenengo liburuko 807 orrialdean au diño:

"Olea, en Mendexa. En campo azul, una mano sosteniendo un estandarte con cruz de plata en el centro. De este solar parece ser el famoso alferes Olea, el de Campdespina".

Gaur Olea abizena (apellidua) Mendexa'n galdu dala esan geinke. Bat billatu lei, Mari Jose Olea len Ikutza barri eta gero base-ri izatea galdu ta kaleko etxe biurtu dan Arteta bekoan. Geiagorik?

EUN ETA AMAIKA URTEKO AGUREA

Bizkaiko Eleizaren Histori Arkibuan, Derio'n, an dagozan Mendeja'ko eleiz liburu zarrak aztertzeko aukera euki izan dogu.

Bataiatuen liburuak, jaiotzetakuak, 1583 urtean asten ba dira be, gaitz da lenengo liburuak irakurtea, liburu batzuk, batez be lenengoa txarto zainduta egon izan diralako.

Alaz eta filminetan batua da eta orrelakoak argi ikusteko gailuekaz ikusi al izan dogu, lenengo liburuko agiriak Thomas Abad de Billanueba (sic) izenpetuta dagozala.

Lenengo liburuan emengo etxeen urratsak jarraitzeko aukera billatzen da. Ala Ikoaga irakurten da 1595 ko agiri edo partida baten, Matxin de Leaegi beste baten... Seigarren agirian Domingo de Likona eta Domeka de Likona'ren semearena agertzen da.

Esan bear dogu Domeka izena emakumeetan erabilten zala, eta ez emen bakarrik, bai Ondarroa'ko denporaldi aretako papereetan be.

Agertzen dan amazortzi garren jaiotza be Santiago Likona eta Madalena Likona'k sortutakoarena da.

Urrengo Lonikis'ko semearena dator.

Gero Uskola eta Leaegi izenak agertzen dira. Geroago Balthasar, hijo de Sebastian de Leokiz...

Beste baten, 1599 urtean, Pedro de Aurrekoa, garbi irakurten da.

Guk uste lez, eta beste errietan gertaten dan lez, abizenetan, apelliduetan, etxe izena, etxeke jatorria erabilten da zeatz-meatz.

lidakoen liburuetan

lidakoen saillean, lenengo argi ikusten dana, Simon de Mendeja'ren eriotza da, 1584 urtean.

Kontu egin orren aurretikoak, ziurretik, Lekeitio'ko parroikiko liburuetan agertuko dirala, bai jaiotzetakuak eta bai illenak, an jasotea izan leikelako.

Arrigarriena emen dator, illen liburuko bigarren il-agirian. Begira zer diñon: "...En quinze días del mes de noviembre del mill e quinientos e ochenta y quatro murió Pedro Arrasate, el viejo- estuvo ciego en cuarenta años- y por la verdad firmé que murió de ciento honze años."

Martin de Zabala da egiaztapen ori egiten dauana, abadea.
Zenbat egongo ziran Bizkaia'n, Mendeja'ko Pedro Arrasate el
viejo a lez, eun urtetik gora beste amaika bizi ziranik?

Nai litzake onetazko zerbait jakin.

Dana dala, or dago guk billatu dogun eta filminetan garbi-garbi
ikusten dana.

Gero beste eriotze batzuen barrj agertzen da.

Ala Cathalina de Algorta, 1584'n.

Maria de Likona, urte berean.

Garzia de Algorta, hijo de J. Algorta y doña Maria Beltran de
Hormaegui, 1585 urtean.

Maria de Leaegui, madre de lñigo de Leaegui, 1585 urtean.

Eta ondoren, gure itxas ertzeko gertaera baten ondorena.

Orduko bizibideko ondoren bat: Baleen atzetik, baleen kazan itxa-
soan ibilteak ekarrezan ondorenetako bat. Ez da argi irakurten, bai-
ña bai onelako adierazpenak: "... viernes, ala entrada de las pina-
zas que se entraron quince dias del mes de Noviembre (1585), se
ahogó Albarillo, nieto de Leaegui, en las balenas, en la pinaza de...
Quiso Dios que los demás salieran bibos a nado."

Dirudianez, mare berakoa zan, txalopak sarrerarik billatú ez eta
ezin sartuta tirabiraren bat gertatu zan. Ez da garbi irakurten, bai
mare berakoa zala esaten dauan agerpen ori.

Eta gero beste eriotzen barri, ziurretik etxeetan illak:

Micaela de Leaeguigoicua.

Beste bat Iturrate Exaiiturreta... Beste bat Loniquiz, beste bat
Domingo de Leaegui y Basterrechea, Beaskoa beste bat...

Eta barriro itxas illeta, 1597 urtean. "Vino la nueba cómo murió
en Gallizia, en la nao de Domingo de Arrasate..."

Ezin ukatu Mendeja, bere itxas ertzak zirikatuta, bere oiñetan
eukan itxasoak dei eginda, bear ba da lurreko emaitzak baiño itxa-
soarenak atsegin eta emonkorrago izango ziralako, itxasoetan,
arran-tzale edo merkatari artean sartzen arduratu eta aleginduko
zanik.

Gure eleizetako liburu zarrak irakurteko zaletasun apur bate-
gaz, zenbat gauza ez ete litzakez agertu eta ziurtatuko, gaur irudi-
men illuntsu eta aideko baten izan leitekezan baiño geiago, gaur
ardura barik edo kezka barik bastertu eta lagaten doguzanak?

Bein baiño geiagotan uste izan dot gure errietako kondaira ez
dala egitada edo kondaira lez idatzia izan. Gure errien bizia, igarri
egin bear da, ain zuzen il ondorenetan egiten diran egiaztapeneta-
tik, nai eta eurak zeatz eta laburrak izan.

BIZIBIDEA MENDEJA'N

Mendeja baserri erria da.

Bere bizia lurretik datorkiona.

Egia da gaur Lekeitio'rako uda giroan bilbotarrak dauken joe-rak, Mendeja'ri be bere eragiña ekarri dautsala, batez be Kurlutxu inguruan egin diran etheen bidez.

Gogoan eukiteko da Lea ondartzak, Isuntza eta Karraspio, Mendeja'renak dirala edo bere udalerrian sartzen dirala.

Ortik kanpora, Mendeja bere basoetan baliatzen da, batez be piñadi eta eukalptus sailletan biurtuta daukazalako. Edo ta etxe ingurutako soloetan, gaur plastikazko aterpe babestu ugaritan landare eta ortuari asko erabili eta artuaz.

Bizkai maillan nekazaritza inguru mairiko egituraren ezaugarrietako bat da, ondorio nekezeko lanetan iñardu bear dauana, fami-li ko laguntza asko eurretan sartuta.

Etheen zerrendan, etxe bakoitzeko ganadu, egazti, untxi eta abarrek, etxe bizitza erakusten dabe, bestelako ekoizkortasun eta produtibidade amets andirik barik.

Bigarren eta irugarren sailleko ogibidetzan, ze ikusi gitxi dauka Mendeja'k, bertako bizi-lagunak ez dautselako orretan ogibidetu leikezanen aukerarik emoten, banakentzako zeregiñentzakoak bes-terik.

Alaz eta batez beste Bizkaia'n, buruko, per capita deitzen dan irabazien ainbestekoa euneko 0,33 gitxi ta urriagokoak dirala esaten da Mendeja'koena.

Bizkaia'n, errentagarritasunean, Ereño, Gamiz-Fika, Meñaka eta Mendeja eta Ubidea dira errentagarritasun txikiena emoten dabenak.

Eta ekoizkortasunean, produtibidadean, Errigoiti, Meñaka, Mendeja eta Ubidea.

Alaz eta bizibide neketsu eta urria eukiarren, Mendeja'k bereari eusten daki, eta bere lurrari eskintzen dautsoz bertakoen izerdiak. Onetan endazko, oiturazko, jatorra eta etenbakoa da Mendejarren jokabidea.

MENDEJA'KO KANTU, KONTU ETA BERTSOAK

Ni Mendexara san Pedroetan
ba noa zezenetara,
arek bai neskatxak
ederrak, galantak,
lekeitiarren aldean
Mendexa Eleizaldian!

Da San Juan, da San Juan
beti zaukadaz goguan.

Igaztik ona urte bete da
denpora onen luzea!
Aarik onako
gau egunetan
mudatu leike gaztea,
mudatu leike gaztea.

Da San Juan, da San Juan
beti zaukadaz goguan.

Cancionero Popular Vasco. R.M. Azkue.

(Lekeitio'ko Alfonso Maria Azkue'gandik ikasi ta lez agertzen da.)

233. —NI MENDIARA

v | j | Un . dr | ur | Pe ' |
g a - i t t un.a ur t.

ēfo.. ēā | . yal r // en. en | la - te

Vr len - dr | Pe | uan | | - Pal.
- g.a _ rrY enra ur . te dbe.te

di en.en | lu. ec . e | r'k u | Yatcak
na\o

gau dei.ak | Aa - lanr.a4 | ū. bai | al r d.
e - Aun e_tan ma . raa tu ler - Y. z. te-

en an E. lia . al - de | Da
ma ra* . lu lei . ke gar - Ie . a. Da



San Du san ū. ee . Ir
San ū. - m ea san Dea

aaLa . Ja . an.

MENDAXALDEKO NESKAK

Tra, tra. tra ia la la,
tra, tra. tra la la la.

Mendexaldeko neska ederrak
inguruetan ez lakuak,
lekeitiarren begi zoliak
euren atzetik daruez,
eta biotzak tuku-tukuka
egun guztian dakarrez,
antxiñetan lez orain ta beti
Mendexa,p neska ederrak.

Ispasterren jaioa dot aita
eta ama Mendexa garaian,
bien artian Lea ondoan
kumatxoa eskin ur ertzian.
Amak ugari emon titia,
aitak oparo bere itzala,
itxas egalen kabi egin da
ara orain Lekeitio nazala.

Tra, tra, tra la la la ...

Ama ederra ba zan,
alaba ederrago,
artajorran ez daki
itxastarra dalako.
Itxastarra dalako
kresala dau maitien,
itxasoko zirenak
emen jaio zirien.

Tra, tra, tra la la la
tra, tra, tra *la* la la.

GERNIKAKO BATZAR BATEN

Gernikako Batza etxea aldenez ta ikusguraz bete beterik egoan goiz baten zadorlaria (sekretarioa), oi ebanez, guztiak entzuteko eran Mundaka lenengo aitatuaz, aldunai banan banan dei egiten asi zan, bakoitzak bere ezauga ia maipurukoai erakusteko. Mendeja entzun eragin ebanean, Mendixako Piel (orduko Pielak orain alkate dira) mai-aldera agertu zan.

— Ea paperok, Mendixa.

Kolkotik, bere aldun-izena ateraten ebilenartean, arto-zati bat eta iru sagar gazamin yausi dakazan Pielari lu era. Gorputzari zirkinik ez arpegiari pariztarik eragin bagarik berak esan eban:

"Emen da Maria gureak
niri gerturiko gosaria:
iru sagar gazamin
ta arto zatia."

Ba e-zantzoka asi ziran, euskaldun ta euskaldun motz (1) bere batzarkide guztiak. Lenengo batza aldia amaitu zanean, askok, ya aitu eutsen gure Piel oni ostatutzat artu eban ardantegira. Euren arteko ba itsu-samarenak.

Mendixa —esan eutsan—; azken egunean zuk emongo dautsazu ostatariari eskupekoa!!

— Bakotxak al dabena emongo dau.


— Mendixa — zirautsan beste batek—: Bilbon gatzari a ak egi-ten eidakoz ta zuk baedodakizu zezaz kendu al leikiozan.

— Orixe bai. (noiz umerik egin bagako mandemearen ezneaz, uraz soinekoen zetaka ta natuak legethez, il daroaguz gatz-arok.

Au entzueran, aldun batzuk alka i kinuka zinoen: ¿Nork nori yoko etedautsaguz bostak (2) geuk beroni ala beronek geuri?

— Mendixa: zuen base itxoan ezaldago zu baino burutsuagorik.

—Bai ta ez gitxi. Arek ba iz beste arazo andiago batzuetara zuzendu oi dabezi Zuekana neu, naizantxo au, bidaldu nabe.



ANTZERKI JAI BAT MENDEJAN

Au entzunda, bat baino geiago gelditu ziran base ita aldunari
lotsa geitxoagoaz begira.

Azken egunean gure Mendixar au ostatariagana isilean agertu-
ta, itz onek esan eutsazan:

—Ekazu amaseiko bat, zeutzako mesedean izango da-ta.

Bazkalostean kontuan eskatu ebanean, aldun asko (beste
ostatueta egozan batzuk be e bai) zurt egozan, adi-adi, Mendixak
zenbat emongo eban yakin gurarik.

Etxandereak kontua erakutsi eutsanean, lauzuriko ta maraira-
ginokoa emonda gero, katana utik amaseiko go i ede a aterata,
mai-ganean ots zoli-zoli eraginaz.

—Ona emen nire eskupekoa — esan eban —. Gizon yakitun
aberats apainduok geiago emongo dautsue. Ni geiagora enaiz el-
tzen.


Batzuk, lotsa en edo, ontzako bana emon eieben eskupeko-
tzat.

(1) Euskeraz ezekien-euskaldunak euken orduaneta gure egunok elduarte
"motz" goitzen au.

(2) Esakeratxo au ta Mondragoaldeko *bostak emon* erderazko "tomar el
pelo" langoak dira.

(R.M. Azkue'ren "EUSKALERRIAREN YAKINTZA" tik artua)

Agostuen lenenguen
San Pedro Mendixakua,
etxat sekula aztuko
orduko illuntzekua



Y
W
I
N
O

W

**AUZORIK AUZO
ETA
ETXERIK ETXE**

ZELAIA AUZOA

Etxeak

Agerre bekua

Akarregi

Etxebarria

Gojeaskoa

Ikutza

Markue

Mendexa

Mendexa Goitikua

Torretxu

Torria

Uribarren Bekua

Uskola

Uskola Aurrekoa

Zelaia

AGERRE BEKUA



(**AGARRE BEKOA** edo ta **AGIRRE BENGOA BEKOA**)

Auzoa: Zelaia

Ez da agertzen 1704 zerrendan.

Etxe bizitza bi daukaz.

Jaubea: Abaroatarrak.

Etxe baten, errenteru lez, Jose Leniz Kalzakorta eta Dominika, neba arrebak bizi dira, eta eurekin batean Jose franzisko, Jesus Manuel eta Pedro Agustin Juaristi Leniz, lobak.

6 hektarea.

5 bei, 4 txal, 70 oillo eta untziak (konejuak) daukez.

Sagardua egiteko tolarea dauke. Urte bitik bein egiten dabe sagardua.

Beste bizitzan, Juan Laka eta Petra Goikoetxea senar emazteak eta euren alaba Jone, Raimunda eta Juana bizi dira.

5,5 hektarea daukez eta 24 oillo.

Bertokoak "Itxas Gain" tabernan egiten dabe bizitza. Bai eta Felipe Laka eta Justa Laka senar emazteak.

AKARREGI



Zelaia auzoan.

1704 urtean Santiago Hurtado de Mendoza agertzen da bertako jaube.

1745 urtean, Monterron'go kondea.

1796 urtean Akerregi lez agertzen da. Eta Jose Antonio Ibase-ta, Berriatua'ko abadea zan bere arduradun.

1863 urtean Martin Juaristi zan jaube.

1988 urtean Begoña Arriaga Urberuaga izenean dago.

Zati bitan banatuta dago.

Bateko errenteruak Jose Martin Iturraspe Okamika eta Angel Jose bere anaia bizi dira.

4 hektarea.

Beste zatian Iñazio Uskola eta Benedikta Gorostola senar emazteak bizi dira eta Pedro Uskola, senarren anaia.

4 hektarea. 6 bei, 8 txal, mando bat, asto bat eta untziak (konejuak) daukez.

Gerra denporan baserri onetakoak Arrasate baserrira aldatuta bizi ziran.

1704 urtean Akarregitxu izeneko etxe bat agertzen da. Ez eukan solorik ez jaubetasuneko beste ezer. Ba dirudi etxea jaso ebela eleiz-atean bere autarkia (botoa) eukiteko.

ETXEBARRIA (TORRE BARRIA)



Auzoa: Zelaia

1704'n Etxebarria lez agertzen da.

1745 Torre Bidarte eta Lekeitio'ko Konpañia ko Aitak ziran jaube.

1796 Torre Zelaia lez agertzen da, eta jaubeak lengoak.

1810 urtean, Torre Barri.

1988.— Justina Arriaga (ama) ete bere seme Txomin eta Bruno Arrillaga Arriaga bizi dira.

Etxe jaubeak dira.

5 hektarea.

4 bei, 5 txal, mando bat, 7 auntz, oillo eta konekuak daukez.

Azken gerratean, itxasotik jaurtitako lerkari (bonba) bat kortara sartu jakoen.

GOJEASKOA (GOISKUA)



Zelaia auzoan.

1704 urtean Ind. Abaroa zan jaube.

1745 urtean, Juan Abaroa.

1796 urtean Min Uribarren.

1814'n Juana Abaroa.

1820'n Manuel Erkiaga.

1863'n Jose Ant. Erkiaga.

1988'n Julian Juaristi Urkiaga da jaubea eta Maria Mercedes bere arrebaz bertan bizi da.

10 hektarea.

4 bei, 4 txal, 1 mando, 6 ardi, aari bat, oillo eta konejuak daukez.

Sagardau egiteko toleara ba dago bertan eta urte bitik bein egiten dabe.

IKUTZA



Zelaia auzoan.

1704 urtean, Jose Mendeja zan jaubea.

1745 urtean, Juan Urkiaga.

1796 urtean, berbera.

1824 urtean Juan Manuel Leniz.

1863 urtean, Antonio Arriaga.

1988 urtean, Juan M. Arriagar

15 hektarea.

Sagardua egiteko tolarea ba dago, baiña ba dira 30 urte inguru erabili ez dabena.

MARKUE



Zelaia auzoan.

1704 urtean Markue lez agertzen da 1745'n Markube eta gero barriro Markue.

1704 urtean Tomas Gomestegi zan jaube.

1745 urtean Pedro Atxurria.

1795 urtean Katalina Atxurra.

1810 eta 1824 bitartean Jose Goiria zan jaube.

1863'n Pantaleon Goiria.

1.988 urtean Franzisko Zilloniz eta Maria Arriaga senar emazteak bizi dira eta jaubetasuna eurena da.

7 hektarea.

Bei bat, txal bi, mando bat, ardi bi, bildots bi, aari bat eta oilloak.

Azken gerratean Mutriku'ko Alkolea'tik jaurtiten zituen bonbak bertara eta baserria uztuta euki zan zazpi illabetan.

MENDEJA

MENDEXAKUA (MENDEXA BEITIKOA)



Zelaia auzoan.

1704 urtean Antonio Mugartegi zan jaubea. Mendexa izenez agertzen da.

1745 urtean Pedro Mari Unzueta.

1796 urtean Jose I. Unzueta. Urte onetan Mendexakua deitzen da.

1810 urtean berbera.

1814 eta 1824, Santiago Unzueta.

1863 urtean Juan Jose Unzueta.

1981 urteko paperetan MENDEXA BEITIKOA lez agertzen da.

1988.— Jose Maria Plaza Antxustegi agertzen da jaube eta Maria Berasaluze bere emaztea eta Miren eta Maria Pilar alabak bizi dira.

6 hektarea.

2 bei, 18 txal eta beor bat.

1940 urtean erre egin zan.

Juan E. Delmas idazleak, bere "Biografía de claros varones de Vizcaya" liburuan au diño: "Sancho de Mendexa: Ñatural de Mendexa y fundador de la casa así llamada durante la dominación del rey Dn. Alfonso El Cristo (795 a 843) donde también fue fundada la de Licona (924) antecesor por línea directa del insigne Iñigo de Loyola fundador de la Compañía de Jesús."

Orrela izatekoan, etxe au ia milla ta berreun urte sortu zan Mendexa'n.



MENDEXA GOITIKUA

(GOIKOA.— MENDIBE)



Auzoa: Zelaia.

1704 urteko zerrendetan, Antonio Mugartegi agertzen da bertako jaube lez eta Andres Uskola bertan bizi.

1745 urtean, Pedro I.Madariaga jaube lez eta Juan Abaroa bizi.

1796 urtetik 1814 bitartean Jose Agustin Ojangoiti zan jaube.

1824 eta 1863 urtean jaube lez Cayetano Oxangoiti irakurten da.

1988 urtean, Franzisko Iturraspe Zelaia da jaubea eta Modesta Atxurra emazteagaz bizi da. Bai eta bertan bizi dira euron seme alaba Angel eta Miren Edurne ezkongaiak, Jose Jabier Miren E. Gandiaga'gaz ezkondua eta onein alaba Alazne.

9 hektarea.

2 bei, 4 txal, asto bat, oillo eta konejuak.

Oraintsuarte Eibar'ko lantegi baterako eskopeten gibelondoak (kulatak) egiten ziran bertan.

Gerra denporan baserri au kañoi-suz erretoa geratu zan. Len Mendixakua'gaz alkar jotzen egoan eta barriztatzean 10 metro aurrerago egin eben.

TORRETXU



Auzoa: Zelaia.

1704 urteko zerrendetan, Manuel Goio zan jaube Katalina Asterrika bertan bizi errenteru lez. Etxe erdika lez orkaintzen eban.

1745 urtean, jaube lez Iñazio Goio'ren kapillautzakoa zan.

1796 urtean, Antonio Akerregi.

1810 eta 1824'en Maria Eiguren alarguna agertzen da jaube.

1824 urtean Nikolas Laka.

1863 urtean Jabier Laka.

1988 urtean Ageda Zilloniz da jaube eta bere seme Jose Ramon Laka'gaz bizi da.

3 hektarea.

3 bei, txal bi, asto bat, oillo eta untziak.

TORRIA



Auzoa: Zelaia.

1704 urtean Torretxu joten dagon etxe lez agertzen da.

1745 urtean Jose Aurrekoetxea ezagutzen zan jaube lez.

1810 urtean Bartolome Uskola zan jaube eta alaxe agertzen da ondorengo urtetako zerrendetan.

1988.— Jaube lez Erkiagatarrak ezagutzen dira.

Eufemia Agirre (izekoa) eta Rosario Laka bizi dira erreteru lez.

5,5 hektarea. Oillo eta untziak (konejoak) daukez.

URIBARREN BEKUA



Auzoa: Zelaia.

Zerrenda zarretan ez da agertzen etxe onen barririk.

1988.— Abaroatarrak dira jaubeak.

Alejandro Arrillaga eta Katalina Kalzakorta senar emazteak bizi dira errenteru lez.

4 hektarea.

6 bei, 3 txal, oillo, untzi eta abar.

Etxe bizitza bitan banatuta dago.

Beste etxeak 4 hektarea daukaz, eta utsik dago.

USKOLA



Auzoa: Zelaia.

1704 ko zerrendetan, Domingo Mugartegi agertzen da jaubetzat eta Santiago Iturraspe bizi errenteru lez.

1745'n Pedro Jose Mugartegi jaube eta P. Goenaga errenteru.

1796'n, Uskola bekoa izenez agertzen da.

1810'tik aurrera, Jesus Jose Mugartegi agertzen da jaube eta 1863'en Diego Mugartegir

1988.— Ramon Laka'ren izenean dago jaubetasuna eta Hilaria, Mari Teresa eta Mari Lourdes arrebekin bizi da.

11,5 hektarea.

6 bei, 6 txal, zaldi bat, txarri bat eta abar.

Sagardua egiteko tolarea dauka. Urtero lau milla botilla gertuten dira.

USKOLA AURREKOA (PERLIA)



Auzoa:Zelaia.

1704. Urte onetan "La otra casa de Uskola" esaten da. Uskola etxea zatitu egin zala eta On Ramon Ojinaga'k sortutako Baituen Askapenerako erakundearena zala geien bat.

1745 urtean Juan Gizaburuaga'ren arduratzako lez agertzen dan jaubea nor dan esan barik.

1796 urtean Uskola Goikoa, Santiago Abaroa'ren izenean egonan.

1810, 1814 eta 1824'n Juan Arrizubieta'ren izenean agertzen da.

1863 urtean, V. Odiaga'renean.

1988.— Jaubeak Solano Aranatarrak. (Bost neba arreba. Arduradun On Ramon). Roman Agirre eta M.^a Angeles Anakabe senar emazteak bizi dira, errenteru lez.

8 hektarea.

4 bei, 5 txal, mando bat, auntz bat, oillo eta untziak.

ZELAIA (ZELAINE) (MENDIBE)



Auzoa: Zelaia.

Ba dirudi lengo denporetan etxe au BEAZKOA deitzen zala.
Izen onegaz, 1745 urtean Lucas Goitiandia agertzen da jaube
eta bertako bizilagun.

1796 urtean Xabier Goitiandia zan jaube eta urte onetan Beaz-
koa-Zelaia deituegaz agertzen da paperetan.

1863 urtean Bizente Odiaga da jaubetzat izentatzen dana.

1988.— Jeronima Iturraspe bizi da bertan bere seme Jabier
(jaubetasuna onen izenean dago) Ramon eta Joseba'gaz.

5 hektarea.

3 bei, 3 txal eta asto bi eta abar.

1986'ko Iraillean barriztu eben.

LIKONA AUZOA

Etxeak

Agirre

Arrasate Bekua (Errementari)

Arrasate Aldekoa

Arrasate Erdikoa (Brandua)

Arrasate Goikoa (Sebastianeana)

Endaidi

Iturraspe

Likona

Likona Erdikoa

Likona Zabala

Loibe Goikoa

AGIRRE AGARRE



Likona auzoan.

1704 urtean Clara Arrasate zan jaube eta bertan bizi zan.

1745 urtean, Juan Algorta jaube.

1796 urtean, Xabier Algorta.

1810 urtean Domingo Odiaga (alkatea) jaube.

Bertako emaitzak: 60 dukatetan eta ikatz burdi bat.

Maasti bat eukan Loiben.

1814 eta 1.824 be jaube lez berbera agertzen da.

1863'en Pedro Jose Odiaga.

1988'n Patxi Guenaga Gabiola'ren izenean dago jaubetasuna, eta bere emazte Nekane Laka eta Jose Luis, M.Lourdes eta Mariana seme-alabak bertan bizi dira. Bai eta Patxi'ren arreba Petra.

9 bei, 13 txal, mando bat eta abar daukez.

14 hektarea.

Tolarea be ba dauke eta bi milla litro sagardu lortu zituen azken sagar-sasoian.

ARRASATE BEKUA (ERREMENTARI)



Likona auzoa.

1704 urtean Arrasate Rementeria deitzen da. Manuel Uskola zan jaube eta bertan bizi.

1745 urtean Agustin Uskola'ren izenean ezagutzen da jaubetasuna eta bertan bizi zan.

1796 urtean, 1810, 1814 eta 1824 urtetan be izen berberean agertzen da.

1863 urtean Jose Uskola zan jaube.

1988 urtean Antonio Correa eta Bitoria Osa senar emazteen izenean dagoz jaubetasun agiriak. Eurakin bizi dira euren alaba dan Belen eta bere senar Jose Ramon Bariganarementeria, bai eta Isidoro Osa koñatua be.

6,5 hektarea.

4 txal, asto bat, oillo eta untxiak.

ARRASATE. ARRASATE ALDEKOA



Likona auzoa.

1704'n Domingo Solarte'rena zan eta bertan bizi zan.

1745'n Juan Iturraspe irakurten da jaube lez.

1796'n, Iñazio Akarregi.

1810'n Santiago Agarregi.

Berak egindako agerpen baten, 70 dukat lortzen zitula emaitzen irabazietan eta beste burdi bi ikatz, autortu eban.

1814, 1824 eta 1863 urtean Akerrigitarren izenean agertzen da jaubetasuna.

1988'n Juan M. Galarraga eta Rosa M. Arriaga, senar emazteak, agertzen dira jaube lez. Eureka bizi dira Jasone eta Lorea alabak eta Maria Akarregi izekoa.

10 hektarea.

Sagardau egiteko tolarea euki eben baiña ba dira 15 urte kendu ebela.

1977 urtean barriztatu zan.

ARRASATE ERDIKOA (BRANDUA)



Likona auzoa.

1704 Juan Arrasate ezagutzen da jaube lez eta bertako bizilagun.

1745'n Juan Deustua jaube.

1795'n Domingo Leniz.

1810'n Domingo Leniz. Paperetan Arrasate Branduena lez agertzen da.

1814 eta 1824'n Domingo Leniz berberak jarraitzen dau jaube lez.

1.863'n J. Zilloniz'en izenean ikusten da.

1988'n, Martin Urkiaga eta Karmen Gojenola bere emaztearen izenean dagoz jaubetasun agiriak, eta Pascual semea eta Brigida Azpiazu amagiñarreba bizi dira bertan.

7 hektarea.

6 bei, 6 txak, asto bat eta untziak (konejuak)

ARRASATE GOIKOA (SEBASTIANEA)



Likona auzoa.

1704 urtean Jose Arrasate zan jaube eta bertan *bizi* zan.

1745'n, Juan Arrasate jaube.

1796 urtean Lekeitio'ko Konpañia'ko Ikastetxearena zan.

1810 urtean Agustin Lekerika'ren izenean agertzen da.

1814 eta 1.824'n, Agustin Lekerika'n jarraitzen dau jaube lez.

1863'n Jabier Uribarren'en izenean dago.

1988 urtean Leandro Alzibar eta Maria Agirre senar emaztien izenean dagoz jaubetasun agiriak. Eurekin batean bizi dira Gotzone, alaba; Anton Aresti suiña eta Lexuri Aresti loba.

9 hektarea.

10 babestutako aterpe daukez.

ENDAIDI (ENDAI)



1704'ko errotzean agertzen danez, Kristobal Asterrika zan bertako jaube eta bertan bizi zan.

1745'n, Juan Aranbeaskoa'ren ondorengoena zan bertako jaubetasuna.

1796 urtean Domingo Aranbeaskoa, agertzen da jaube lez.

1810, 1814 eta 1824 urtetan Jose Domingo Aranbeaskoa.

1863 urtean Migel Gabiola ezagutzen da jaubetzat.

1988.— Bertan bizi diranak:

Jose M. ^a Amilibia eta Madalena Gabiola senar emazteak, eta euron alaba Nerea, Amaia eta Eneritz.

Bai eta Antonio Gabiola eta M. ^a Arostegi senar emazteak, eta euron izenean dagoz jaubetasun agiriak.

Eta bertan bizi dira baita Begoña eta Joseba Zabala Arostegi neba arrebak.

Bertan dago "Endai Kampiña", milla metro laututako lurraldean. Baserriak beste amar milla metro lautu daukaz. Beraz guztira 11.000 m2.

3 bei, 3 txal, asto bat, 5 auntz, oillo eta konejoak daukez.

ITURRASPE



Likona auzoa.

1704 urtean Esteba Zamora agertzen da jaubetzatr

1745 urtean Pedro Unzueta.

196 urtean Joseph I. Unzueta.

1810, 1814 eta 1824 urtetan Santiago Unzueta ezagutzen da jaube lez.

1814'ko erri zergetan, 462 errialen irabazia autortu eban.

1863 urtean, jaube lez, Juan J. Unzueta zan.

1988'n Maria Belen Algorta Coello de Portugal'en izenean dago jaubetasuna. Bertan, errenteru lez, Domingo Goikoetxea eta Mercedes Sagardui senar emazteak eta Pedro semea eta Pedro Goikoetxea anaia bizi dira.

4 hektarea.

8 bei, 6 txal, zaldi bat, eta oillo ta untziak (konejuak) daukez.

LIKONA LIKOA (LIKUZAR)



Likona auzoa.

Noizkoa ete da etxe onen jatorria?

Iturriza istorigilleak diño, "Mendixako Likona" Alonso El Casto errege zala 795 urte inguruan sortu zala etxe au.

1745 urtean Agustin Abaroa agertzen da bertarako jaube lez.

1810, 1814 eta 1824 urtetan Abarotarren izenean jarraitzen dau.

Urte oneitan "Likona emetikoa" lez agertzen da paperetan.

1.863 urtean Juan J. Unzueta zan jaube.

1.988'n Jose M. Elordi eta Dominga Soraluze senar emazteak bizi dira eta euren seme alaba Martin eta Maria Carmen. Martin'en izenean dagoz jaubetasun agiriak. Bertan bizi da baita Ramon Fernandez Paniagua, Mari Karmen'en senarra, eta euron seme alaba Ibon eta Oihana.

5,5 hektarea.

4 bei, 5 txal, asto bat, amar ardi, 30 oillo.

Sagardua egiteko dolarea dauke, baiña ez dabe erabilten.

LIKONA ERDIKOA (LIKU ERDI)



1.745 urtean Domingo Akarregi zan bertako jaube.

1.796 urtean, orduko paperak diñoë, auzitan ebiltzala batzuk, bere jaubetasuna eztabaidatzen. Urte onetan Likona Erdikoa lez ezagutzen da paperetan.

1810

1814

1824 urtetan, Martin Erkiaga zan jaube.

1863 urtean Juan M. Erkiaga

1988'n Domingo Erkiaga da jaube eta Justina bere emazteagaz bizi da, bai eta Mari Tere, Migel Angel eta Jose Jabier seme-alabak eta Justa Erkiaga, euron izekoa.

5 hektarea.

4 bei, 5 txal, asto bat, 30 untzi, 24 oillo.

Iñazio deunaren amuma emen bizi izan zala esaten dabe. Arrizko oroigarri bat dago etxe inguruan, 1.936 urtean Amancio Urriolabeitia'k egiña.

LIKONA ZABALA



Likona auzoa.

1745 urtean Franzisko Zilloniz zan jaube.

1796 urtean Joseph Zilloniz.

1810 urtean Domingo Goikoetxea.

1814 eta 1824 urtetan bererak jarraitzen dau jaube.

1863 urtean Juan Dgo. Goikoetxea.

1.988 urtean: Laka Goikoetxea neba arreba agertzen dira jaube lez.

Utsik dago.

10,5 hektarea daukaz.

LOIBE GOIKOA



Likona auzoa.

1704 urtean Jose Retolaza zan jaube eta bertan bizi zan.

1745' urtean Nikolas Zatika'k eukan bere ardura.

1796'en, Jose Xabier Landaguren.

1810'en, berbera.

1814'n Maria V. Larramendi

1824 urtean Franzisko Aranbiaskoa.

1863'en Fernando Kortabitarte.

1988'n Martin Arantzamendi Gabiola agertzen da jaube lez eta bertan bizi da Milagros bere emaztegaz eta Iñaki, Jon Martin, Ireide eta Gorka seme alabekaz.

9,5 hektarea.

4 bei, txal bi eta untziak (konejuak).

LEAEGI AUZOA

Etxeak

Algorta

Etxetxu

Ipedegi

Lea Bekoa (Beaskoa)

Lea Goikoa

Leaegi Aurrekoa

Leaegi Etxebarri (Santionea)

Leaegi Basterretxea (Gasparrena)

Leaegi Torre

Telleria

ALGORTA



Leaegi auzoa.

1704 urtean Antonio Garcia Algorta'ren izenean egoan.

1745'n, Jose eta Pedro Algortarenean.

1796 urtean, Pedro Algorta agertzen da jaube lez.

1810 urtean, 1814 eta 1824 urtetan, Juan Rafael Algorta.

1863 urtean, Claudio Algorta.

1988 urtean, jaubetasuna Pascual Algorta Coello de Portugal'en izenean dago.

Francisco Gonzalez eta Esperanza Prieto, senar emazteak, bizi dira etxeko morroi lez, eta Jose Migel euren semea.

25 hektarea.

9 bei, 3 txal eta untziak.

Santa Luzia ermitatik 50 metrotara dago.

ETXETXUA



Leaegi auzoa.

1745 urtean Juan eta Franzisko Otegi agertzen dira jaube fez.

1796 urtean "Etxetxua en Lea" irakurten da eta Antonio Yarza jaube.

1810, 1814 eta 1824 urtetan Antonio Yarza'k jarraitzen dau jaube lez.

1863 urtean Carlos Adan en izenean dago.

1988 urtean Atxurratarrak dira jaube.

Franzisko Egurrola bizi da bertan.

4,5 hektarea.

3 bei, txal bi, asto bat.

Lurrez Mendexa, eleizaz Lekeitio.

IPEDEGI (EPIDEI)



Leaegi auzoa.

1704 urteko zerrendan Ipidegi izenen agertzen da. Bertako jaube Domingo Laka, eleizaldeko alkatea.

1745 urtean Juan Etxezabal agertzen da jaube lez.

1795 urtean Joseph Etxezabal.

1810 urtean Jose Alexo Ezpeleta eta M. ^a Josefa Etxezabal bere emaztea. (Lonikiz torrearen lagungarri edo menpeko lez agertzen da.)

1814 eta 1824 urtetan, Jose Alejo Ezpeleta'ren izenean.

1863 urtean Ipidegi irakurten da bere izentzat eta Bruno Calle jauntzat.

1988 urtean, Antonio Goitiandia'ren izenean dagoz jaubetasun agiriak eta bere emazte Begoña Artola eta Antonio, Aitor, Miren Arrate eta Gotzon seme alabak bertan bizi dira. Bai eta Antonio Goitiandia, aita, eta Josefa Aranbarri, birramuma be.

2,5 hektarea.

2 bei, 1 txal, 1 asto, 4 auntz eta oilloak.

LEA BEKOA (BEASKOA)



Leaegi auzoa.

1704 urtean, Diego Irusta'ren etxe-jauntzako lez agertzen da.

1745'n, Agustin Barainka'ren ardurako.

1796'n Babil Areizaga agertzen da jaube lez.

1810 eta 1814'n Juan Carlos Areizaga.

1824'n Areizaga'ren alargunarena zan.

1863.— Narros'ko markesarena.

1988.— Lau etxe bizitzatan banatuta dago.

1.— Jaubea Migel Iturbe Sarasola da, eta Ana Maria Gallatebeitia bizi da bertan. Ez dauka solorik.

2.— Josefa Iturbe da jaubea, eta Eugenio Korta eta Elisa Muñagorri senar emazteak bizi dira.

2,5 hektarea. 3 bei, 4 txal, beor bat, oillo eta untziak.

3.— Karmen Iturbe Sarasola da jaubea eta senar Matias Ugarteburu, eta Franzisko, Jose Mari, Jesus Mari, Juan Luis, Karmen eta Arantzazu seme alabekaz bizi dira.

Solorik ez dauke.

4.— Josefa Iturbe Akarregi da jaubea.

4,5 hektarea.

Lurrez Mendexa da. Eleizaz Lekeitio'ko parrokiaren menpeko.

LEA GOIKOA



Leaegi auzoa.

1704 urtean Markina'ko parroko abadeena lez agertzen da.

1745 urtean, bardin.

1796 urtean Pedro I. Egurrola agertzen da jaube lez.

1810 urtean Maria Josefa Aranegi, alarguna, ezagutzen da jaubetzat.

1814 urtean bardin.

1824 urtean Maria Josefa Egurrola.

1863 urtean, Martin Aristi.

Etxe onen ormak Peñafiorida'ko kondearena zala, jausi egin zirala, irakurten da eta bere solo ta inguruekaz konde berberaren Aranzibia'ko etxeko arduradunak baliatzen dirala.

1988.— Migel Iturbe Sarasola agertzen da jaube lez eta bere emazte Sabina Galletabertiagaz bizi da eta Guruzne, Iñaki eta Asier seme-alabekaz. Eurokin bizi da baita Antonia Sarasola Arrasate, amuma.

8 hektarea.

14 bei, 4 txal eta oilloak.

LEAEGI AURREKOA



Leaegi auzoa.

1704 ko zerrendan, Franziska Arana, alarguna agertzen da jaube eta bertan biziten.

1795 urtean Manuel Urrestieta, Mutrikuarra, ezagutzen da bertako jaube.

1810 eta 1814 urtean, bardin.

1863 urtean, Urrestieta'ren alarguna.

1988.— Pedro Iturraspe eta M^o. Luisa Okamika dira jaubeak, eta euren seme alaba Mari Angeles eta Joseba'gaz bizi dira.

11,5 hektarea.

4 bei, 6 txal, txarri bat eta abar daukez.

LEAEGI ALDEKOA



Leaegi auzoa.

1704 urteko zerrendan Domingo Leaegi zan jaube.

1745'n, Gabriel Uskola.

1810 urtean Juan Antonio Atxurra ezagutzen da bertako jaube.

1814 urtean, bardin.

1863 urtean Juan Jose Atxurra.

1988 urtean Antonio Atxurra Akarregi da jaubear

10 hektarea.

1 txal eta oilloak.

Sagardaua egiteko tolarea dauka, baiña ba dira 34 urte ez dabela erabilten.

LEAEGI ETXEBARRI (SANTIONEA)



1704 urteko zerrendan Franzisko Likona agertzen da jaube eta bertan biziten.

1745 urtean Joseph Likona jaube.

1810 urtean Jose Okamika ezagutzen da jaube.

1814 eta 1824 urtetan bardin.

1863 urtean, Jose Domingo Okamika.

1988 urtean, jaubea Ramon Solano da, eta bertan, erreteru lez, Eusebio Txakartegi eta Jose eta Maria Angeles seme alabak bizi.

7 hektarea.

6 bei, 5 txal eta mano bat.

LEAEGI BASTERRETxea (GASPARRENA)



Leaegi auzoa.

1704 urtean Buena Vista'ko markesa zan jaubea.

1745 urtean, Josepha Adan de Yarza.

1796 urtean, bardin. Urte onetan Lea-Basterretxea irakurten da.

1810, 1814 eta 1824 Antonio Adan de Yarza ezagutzen da jaube lez.

1863 urtean Carlos Adan.

1988 urtean Juan Llaseras Adan de Yarza da jaubea.

Erreteru lez Juan Gorostola eta Pilar Natxiondo senar emazteak eta euren seme alaba Jesus Mari, Rosa Mari eta Mari Pilar bizi dira.

7 hektarea.

.5 bei, 6 txal, zaldi bat, oillo eta untxiak.

LEAEGI TORRE



Leaegi auzoa.

1704.— Buena Vista'ko markesa zan jaubea. Eta Diego Leaegi errenterua.

1745.— Jaubea Joseph Adan de Yarza. Errenterua Juan Leaegi.

Etxe onek ba eukan bere alboko etxea, eta bigarren onetako errenterua In. Txopite zan

1795.— J. Adan de Yarza jaube eta berbera agertzen da 1.810, 1814 eta 1824 urteetan.

1863.— Carlos Adan jaubea.

1988.— Iru etxe bizitzaten banatu ta agertzen da. Jaubea Juan Llaseras Adan de Yarza.

Errenteruak:

1 etxe bizitzan: Maria Pilar eta Pedro Uskola Zendoia, neba arrebak.

2,5 hektarea.

2 etxe bizitzan, Margarita Okamika eta Jesus Okamika, ama-semeak.

2,5 hektarea.

5 bei, 3 txal, mando bat eta untxiak daukez.

3 garren etxe bizitzan Gregorio Uskola eta Dolores Iturraspe, senar emazteak bizi dira euren seme Juan Luis'egaz.

3 hektarea.

Arma-arridun etxea da.



TELLERIA



Leaegi auzoa.

1795 urtean Adan de Yarza agertzen da bertako jaube.

1810, 1814 eta 1824'ko erroltzetan bardin .

1863 urtean Carlos Adan de jaube lez ezagutzen danar

1988.— Juan Llaseras Adan de Yarza da jaubea.

7 hektarea.

Jesus Gabiola bizi da, erreteru lezr

Lurrez Mendexa, eleizaz Lekeitio'ko parrokiaren mendeko.

ITURRETA AUZOA

Etxeak

Agarre Goikoa (Baurdo)

Allona

Eskutorreta

Etxebarria

Goikoa

Ikoaga Andikoa

Ikoaga Emetikoa

Ikutza Errekalde

Iturrate Antziona

Iturrate Beaskoa

Lokiz

Uribarren Goikoa

Zulueta Errota

AGARRE GOIKOA (BAURDO)



Iturreta auzoa.

1863'en Jose Luis Abaroa'ren jaubetasuneko ezagutzen da.
1988.—Etxe bizi-tza bi daukaz:

Baten jaubetasuna Jesus Goikoetxea Arrillaga'ren izenean da-
go eta Simona eta Karmelo nebarrebakaz bizi da.

4,5 hektarea.

5 bei, 7 txal, asto bat, oillo eta untxiak.

Beste etxea Abaroatarren jaubetasuneko da.

Bertan bizi diranak errenteruak dira: Bitoriano Laka eta Enkar-
na Arrillaga bere emaztea, Jose Manuel semea eta Julian eta Eusta-
kio Arrillaga, koñatuak.

4,5 hektarea.

6 bei, 4 txal, asto bat, txarri bat, untxiak eta oilluak.

ALLONA (ALLUA)



Iturreta auzoa.

1704 urtean Gregorio Goitandia zan jaube eta bertan bizi zan.

1745 urtean, Juan Bta. Goitandia jaube eta bertan bizi.

1795 urtean, Joseph Ant. Goitandia jaube.

1810 urtean Allona irakurten da. Jaubea Tengo berbera, eta bardin jarraitzen dau 1814 eta 1824'ko agirietan.

1863 urtean be Jose Antonio Goitandia'ren izenean agertzen da.

1988 .— Etxe bizitza bikoa da.

Bateko jaube Antonio Erkiaga Goitandia agertzen da. Eta bere emazte M.^a Cruz Uriguen eta Antonio semeagaz bizi da.

7 hektarea.

2 bei, 2 txal, asto bat, auntz bi eta untxiak.

Sagardaua egiteko tolarea dauke, baiña zarra, eskuz eral_koa.

Besteko jaube Jose Maria Erkiaga Goitandia da eta bere anai Ramon'egaz bizi da.

7 hektarea.

ESKUTORRETA



Iturreta auzoa.

1704 urtean Jose Ayardi'ren ondorengoan jaubetasuneko zan. Antonio Zamora bizi zan bertan.

1745 urtean Domingo Uriarte zan jaube eta Andres Arrasate bertan bizi.

1795 urtean Jose Goitia ezagutzen da jaubetzat.

1810 urtean, berbera.

1814 urtean ESKAITURRIETA irakurten da bere izen lez. Jose Goitia zan jaube.

1863 urtean Pantaleon Goitia.

1988.— Ramon Laka eta Arantza Koskorrotza senar emazteena da eta bertan bizi dira Agurtzane, Josu, Miren Tere seme alabekaz eta Miren Laka Ramon'en arrebagaz.

4,5 hektarea.

6 bei, txal bat, mando bat, oillo eta untxiak.

ETXEARRIA



Iturreta auzoa.

1704 urtean irakurten da, Domingo Laka'ren etxea zan Etxebarria jausi egin zala eta ez daukala solorik. Ordez, Etxebarria deiturako etxetxua Lekeitio'ko Kompañiako Ikastetxearena zan.

1745 urtean, Jose Asterrika, abadea, egin zan jaube.

1796 urtean, Lekeitio'ko parrokian Kortazartarrak ipinita euken Kapellautzaren jaubetasuneko zan.

1814 urtean Gil Gallatebeitia agertzen da jaube lez.

1988.— Utsik dago. Jaubetasuna Jose Mari Uberoaga'rena da.

GOIKOA



Iturreta auzoan.

1704 urtean Lekeitio'ko Jesulagunen izenean ezagutzen da.

1745 urtean bardin.

1988 urtean, jaubetasuna Jose Luis Urkiaga'ren izenean dago eta bere emazte Bitoria Kortabariagaz bizi da. Eurekin Jose Mari semea eta bere emazte Katalina Urresti eta Jose Mari semetxoa.

6 hektarea.

5 bei, 7 txal, beor bat, oillo eta untxiak.

IKOAGA ANDIKOA (IKU NAGUSIA)



Iturreta auzoa.

1704 urtean Ikoaga Andiko lez agertzen da.

1745 urtean Juan Bta. Amesti zan jaube eta bertan bizi..

1796 urtean, Santiago Amesti.

1810 urtean, jaube berbera eta bardin 1814 eta 1824 urtetan.

Urte oneitan Ikoaga Nagusi lez ezagutzen zan orduko paperetan.

1863 urtean, Jose Dgo. Mendiguren zan jaube.

1988.— Jaubea Federico Iuarte Txopitea da.

15,5 hektarea. 15 bei, 23 txal, zezen bat.

Etxe bizitza lez utsik dago.

IKOAGA EMETIKOA (IKU TXIKIA) (IKOAGA SERTUTXA)



1704 urtean Ikoaga emetikoa irakurten da.

J.M. Garate zan jaube eta Mendexa'ko Jose bizi zan bertan.

1745 urtean, Domingo Uriarte ezagutzen da jaube lez.

1796'an, Manuel Zerella.

1810 urtean Ikuaga atzekoa, lez agertzen dau bere irabazien kontua Franzisko Zerella bertako arduradunak.

1814'n Manuel Zerella zan jaube.

1824, berbera.

1988 urtean Pedro Mari Arrizabalaga eta Consuelo Uskola senar emazteen izenean dago jaubetasuna eta Miren eta Maite seme alabak bizi dira eurekin, bai eta Txomin eta Sabin Uskola koñiatuak be.

9 hektarea.

9 bei, 5 txal, beor bi, untxi eta oilloak.

IKUTZA ERREKALDE (IKUTZATXU)



Iturreta auzoa.

1704 urtean Ikutza Atxurra lez agertzen da. Dgo Leaegi zan jaube eta bertan bizi.

1745 urtean, Jose Elorriaga ezagutzen da jaubetzat.

1796 urtean Isidro Elorriaga, Murelagakoa. Urte onetan Iku-tzatxu irakurten da.

1810,1814 urtetan Isidro Elorriaga'k jarraitzen dau jaube lez.

1824 urtean, Elorriaga'ren alarguna.

1863 urtean, Prudencia Aranzibia zan jaube.

1988.— Carmen Gojenola'ren izenean dago jaubetasuna eta Jose eta Luis Okamika semeekaz bizi da.

3 hektarea.

Bei bi, 3 txal eta untxiak.

Azken gerratean, Carmen seme bat altzoan eukala egoala, soldadu bat sartu eskopeta bekokian ipini, eta txal eta oilloak eroan eutsezan.

ITURRATE ANTZIONE (ERDIKOA)



Iturrate auzoa.

1704 urtean Lekeitio'ko Jesulagunena zan.

1745 urtean, bardin.

1796 urtean, jaube bardiña.

1814 urtean Agustin Lekerika agertzen da jaube lez.

1824 urtean, berbera.

1863 urtean Jabier Uribarren.

1988 urtean, Joan Anakabe Garro da jaubea eta bere emaztea
Soleda Txakartegi'gaz bizi da.

9 hektarea.

7 bei, 5 txal, mando bat, oillo eta untxiak.

ITURRATE BEASKOA (BISKO)



Iturreta auzoa.

1704 urtean Mikaela Egiguren ezagutzen zan jaube lez.

1824 urtean Juan Manuel Leniz.

1863 urtean, J. Leniz.

1988'n, etxe bizitza bitan banatuta dago.

Baten Luzia Kalzakorta Laka bizi da, errenteru lez.

Bestean Gregorio Plaza eta Juliana Agirre senar emazteak bizi dira euren seme Fabian eta Pedro'gaz eta Pia Plaza, Gregorio'ren arrebagaz.

21 hektarea.

7 bei, 8 txal, beor bat, untxi eta oilloak.

Bizitza bien jaube Eliseo Diez Vega da.

LOKIZ (LONIKIZ)



Iturreta auzoan.

1745 urtean Juan Bta. Atxurra'ren izenean ezagutzen da.

1796 urtean, Kristobal Arrizubieta'renean.

1810 urtean Lonikiz irakurten da eta jaubea Arrizubieta.

1814 eta 1824 urtetan jaube berbera.

1863 urtean, Bruno Calle agertzen da jaubetzat.

1988. Etxe bizitza bitan banatuta dago.

Baten Juan Osa da jaubea. Teresa Okamika emaztea eta Juan Luis, Idoia eta Jose Mari seme alabak eta Jose Antonio aita bizi dira beragaz.

7,5 hektarea.

26 bei, 18 txal, zaldi bat, 8 auntz, oillo eta untxiak.

Beste etxean Felix, Ambrosio eta Isidoro Osa Urkiaga bizi dira eta jaubetasuna irurena da.

7,5 hektarea.

6 bei, 5 txal, asto bi, 8 ardi, aari bat eta oilloak.

URIBARREN GOIKOA (BAURDO)



Iturreta auzoa.

1988 urtean etxe bizitza bitan banatuta dago.

Bateko jaubea Petra Natxiondo da eta bere seme Maximo'gaz bizi da.

5,5 hektarea.

5 bei, 4 txal, mando bat, oillo eta untxiak.

Besteko jaubea Jesus Plaza Uskola da eta Soledad Belaustegi emaztea, eta Esther, Mikel eta Itxaso seme alabak bizi dira bertan.

Bai eta Agustin eta Iñazio, Jesus'en anaiak eta Jose, euren aita.

5,5 hektarea.

7 bei, 8 txal, zaldi bat, oillo eta untxiak.

Urtero zazpi milla sagardau botella inguru gertuten dituez etxean dauken tolaregaz. Txakolin apur bat be egiten dabe.

ZULUETA ERROTA



Iturreta auzoa.

1745 Juan Etxezabal zan jaube eta Lukas Atxurra bertan bizi.

1796 urtean Jose Etxezabal irakurten da jaube lez.

1810 urtean Jose Alexo Ezpeleta eta M.^a Etxezabalr

Lonikiz torrearen menpeko zala esaten dar

1814 eta 1824 urtetan Jose Alexo Ezpeleta.

1863 urtean Bruno Calle.

1988.— Benita Lauzirika Lauzirika'ren izenean dagoz jaubeta-suna agiriak. Erreteru lez Jose Maria Arriaga eta bere emazte Pilar Osa eta euren seme alaba Jone Miren eta Aitor bizi dira.

4 hektarea.

4 bei, 3 txal eta untxiak.

Etxekoak diñoenez errota onetan uruna egiten zan baiña eun urte inguru izango dira azkenengoz orretan lan egin zala.

ILLETA ETA ITXAROPENA

ETXE ZARRAK GOMUTAN

Bizitzaren legea eten eziña da.

Bere eragiñean, gizonak ba goaz; guk baiño geiago irauten dabe etxeak, baiña ez dira betiko geratzen, eta igarri barik euren egitura orma utsetan biurtuta ezagutzera elduten gara, edo ta ikuspegi berbera be galdu.

Mendeja'n ba dago orrelako zerbait.

Leokiz torrea entzutetsua izan zan. Gizon gerralariak jaso, ziurretik beste asko lez ez bakerako, odol irakiñen eta minduen eragiñez baiño. Indarkerien bildur eta eurai eusteko jasoko ziran bazutan. Indarkerian eutsi eta tinkotzeko bestetan.

Gogoratu inguru au jauntxoaz betea egon zala eta euron arteko asarreak or gelditzen dirala. Liburu zarrak irakurtea baiño ez dago noz-nai auzo eta inguruak odolez gorritzen ziralaz ziurtatzeko.

Giro orren eragiñez sortzen ziran askotan torreak.

Orrelakoa zan ziurretik Lokiz torrea. Lokiz, Leokiz, Lokiniz... Liburu zarretan Lokiniz irakurten da. Ala 1588 urtean, ildakoen liburuetan. Ala baita 1597 urtean, jaiotzetakoetan.

Baiña deitura zarragoa da. Torrea be zarrago izango zalako. Gogoratu Mendeja'ko liburuak, ildakoenak 1583 urtean asiera eukiarren, eta jaiotzetakuak 1585 urtean, orrek ez daukala esan nai Mendeja orduan sortu zanik, era batera edo bestera legeen aginduak beteten orduntxe asi zala baiño.

Lonikiz torreak antxiñako gerra-etxe ezaugarriak eukazan.

Bederatzi metro luze, lau zabal ikuspegi bakoitzean, eta 80 zentimetro lodierako ormak.

Amabost garren gizaldikotzat etsiten zan.

1704 urtean Domingo Laka zan bere jaube.

1745 urtean Juan Abaroa.

1795 eta 1810 urtetan Jose Etxezabal.

Urte onetako agirietan esaten danez, beste iru etxe torre onen menpeko ziran. Ala Ipidegi, Etxetxu eta Zulueta errota.

Beste zeaztasun au be irakurten zan: Etxe onen txaraketan, bost urtetik bein 100 burdi ikatz atara eikezala.

1814 eta 1824 urtetan Jose Alejo Ezpeleta zan jaube.

1863 urtean, Bruno Calle.

1945 urtean beste Calle bat.

1952 urtean Jose Lauzirikak baserria erosi egin eban eta zazpi urte geroago Benita Lauzirika'ri saldu.

Urte orreitan barriztu egin eben, baiña erdi jausi egin zan eta 1968 urtean beratu.

36 hektarea eukazan ingurutan.

Ez da bakarrik Lonikiz torrea Mendeja'n desegin edo galduta-ko etxeetan gogoratzen danar

Zer geratzen da beste batzuen?

Euren izate berezia euki eben Ariztikua, Lerdena, Likona zaba-
la, Loibe erreka, Telleria... batzuk izentatzeko.

Mendeja'ko bizitza izan ziran, gero Mendeja'ko kondaira, isto-
ria. Gaur askok entzutea bakarrik.

Bizitzako legea da.

AGUR ITXAS LANTEGIEI

Ez da bakarrik Mendeja itxas lantegien azken orduak ikusi eta euren ondarena negartu bear izan dauana.

Bizkai'ko itxas lantegiak, astilleruak, pikotara joan dira, bai gure errietan lako txikiak, eta zoritxarrez bai nortasun andidunak be. Bermeo'n lez Lekeitio'n, edo Ondarroa'n lez Erandio'n. Eta beste abarretanr

Gure gizaldiaren lenengo urteetan, itxas errientzako or egoan leorreko bizibiderako laguntza.

Banakatzen asi ziran eta azken urte oneitan alkarren leian, beia jo eta ondatu.

Mendeja'k be ba eukan bere erriberan orrelako langintza. Gaur batel txikiak besterik ez da egiten gure itxasertzean.

Arrantzarako neurri eta mugak batetik, molde barriak bestetik, galdu dabe emengo oiturazko ontzigintza.

Kaiak daukezan errietan galtzen doian lez gure arrantzale jatorrak oiturazko eben arrantza-era.

Lea ibai ertzean, or gelditzen da, lekuko, testigantza emoten, orreitako lantegi bat.



MENDEJA BARRIZTUTEN

Mendeja ez da lo egon azken urteetan.

Udaletxe,

Ikastola,

Parrokia...

barriztu eta egokitzen alegindu izan da.

Ez aberats, bai txukun, erri txiki bateri dagokion eran.

Erriko taberna or dago. Or baita jatetxe barriak, plazan eta bideetan.

Or dago baita pelota tokia, eder, zabal eta argia. Pelota toki ta jolas toki, jakiña.

Or dago Ondarroa'rako bide nausira urteten dauan bide barria, erriari beste sartu-urteera aukera erraz eta egokia emonaz.


Sarrera gitxiko erria izanarren, Aldundiaren laguntzak egoki banatzen jakin dau, erriaren gurari eta premiñei lenengotasuna emonaz.


Mendejarrak beti izan dira zintzoak erri ondasunak zaindu eta banatzen.

Etxe barri batzuk egin dira erri buruan. Batzuk baserri ordez egiñak.

Beietan, batez be Kurlutxu inguruan, ainbat etxe barri, geienak uda zaleentzat, orrelakoak oi diran erabide eta egiturekaz.

Eta bereak diran Isuntza eta Karraspio ondartzetan alegiña egi-ten dau udazaleei gero ta aukera eta garbitasun geiago emoten eta eskintzen.





AURKIBIDEA

Lekutzea	11
Udal erakundea	15
Oiñetxeak eta armarriak	20
Mendexarren eleiz egitura	25
Parrokia	29
Ermitak	31
Ziborioa	36
Bideetako kurutzak	38
Mapa	41
Artxiboak	42
Mare errota	45
Lea'ko ospital zarra	48
Kobak	51
Mendeja'ko itxas egala	53
Mendexar arrantzaliak eta lekeitiarrak	56
Kaxarranka eta mendexarrak	58
Isuntza'ko zubia	62
Orain berreun urte	64
Frantzetarretatik igeska	72
Jaietako dantza eta nasteak	73
Aurrekoa oillar jokoa?	75
Kutunak	76
Sagardaua	78
Olea alfereza	80
Eun eta amaika urteko agurea	81
Bibi bidea Mendeja'n	83
Mendeja'ko kantu, kontu eta bertsoak	84
Mendaxaldeko neskak	85
Gernikako batzar baten	86

Auzorik auzo eta etxerik etxe	91
Zelaia auzoa	92
Agerre bekua	93
Akarregi	94
Etxebarria	95
Gojeaskoa	96
Ikutza	97
Markue	98
Mendexa	99
Mendexa Goitikua	101
Torretxu	102
Torria	103
Uribarren bekua	104
Uskola	105
Uskola aurrekoa	106
Zelaia	107
Likona ausoa	108
Agirre	109
Arrasate bekua (Errementari)	110
Arrasate aldekoa	111
Arrasate erdikoa (Brandua)	112
Arrasate goikua (Sebastianea)	113
Endadi	114
Iturraspe	115
Ljkona	116
Likona erdikoa	117
Likona zabala	118
Likona goikoa	119

Leaegiauzoa	120
Algorta	121
Etxetxu	122
Ipedegi	123
Lea Bekoa (Beaskoa)	124
Lea Goikoa	125
Leaegi aurrekoa	126
Leaegi aldekoa	127
Leaegi Etxebarri (Santionea)	128
Leaegi Basterretxea (Gasparrenea)	129
Leaegi torre	130
Telleria	132
Iturreta auzoa	133
Agerre goikua (Baurdo)	134
Allona	135
Eskuturreta	136
Etxebarria	137
Goikoa	138
Ikoaga andikoa	139
Ikoaga emetikoa	140
Ikutza errekalde	141
Iturrate Antziona	142
Iturrate Beaskoa	143
Lokiz	144
Uribarren goikoa	145
Zulueta errota	146
Illeta eta itxaropena	147
Etxe zarrak gomutan	149
Agur itxas lantegiei	151
Mendeja barriztuten	153
Aurkibidea	157